

DISKO BERRIA

Oñati Vizirik

'Oñati Bizirik' bildumako bosgarren diskoa plazaratu du Antixena gaztetxeak. Apirilaren 6an aurkeztuko dute gaztetxean bertan





OPORRAK BAKEAN

Harrera-Familiak behar dira, errefuxiatu kanpalekuetan bizi diren haur sahararrak udan Euskal Herrira ekartzeko
Apirilaren 14a da izena emateko azken eguna

lazko udan haur sahararrak hartu zituzten Oñatiko familiek oso positiboki baloratu dute esperientzia oro har

Martxan da aurten ere **Oporrak Bakean** programa, Tindouf-eko (Algeria) basamortuan bizi diren haur sahararren udako hilabeteak Euskal Herrian igarotzeko aukera ematea helburu duen ekimena.

Gogoratu, saharar herriaren zati handi bat basamortuan egokitutako kanpalekuetan bizi dela Marokok Mendebaldeko Sahara okupatu zuenetik, orain dela 47 urte. Hango bizi-baldintzak oso gogorak dira —udan 50 gradutik gora— eta, horregatik, programa honen helburua da baldintza horietan bizi diren 8-12 urte arteko haurrei uda Euskal Herrian igarotzeko aukera ematea.

Hemengo egonaldia oso onuragarria gertatzen zaie haur horiei; beraien osasuna hobetu egiten da (hemengo elikadura orekatuari esker), eta, gainera, beste errealitate bat ezagutzen dute, euren bizitokian ezinezkoak

diren ekintzak egiten dituzte, hizkuntza berri bat (edo bi) ikasten dituzte, lagun berriak egiten, familia berri bat....

Helburua da aurten 300 bat haur saharar ekartzea Euskadira, eta, jakina, horretarako harrera-familiak behar dira. Iaz bost haur etorri ziren Oñatira eta, oro har, esperientzia ederra eta oso aberasgarria izan zela azaldu digute harrera-familiak.

Izan ere, harrera-familientzat ere onura asko ditu *Oporrak Bakean* programak: uda ahaztezin bat pasatzen dute familiako kide berri batekin, haurren familia eza-

gutu eta, gerora, nahi izanez gero, kanpamenduetara bidaiatzeko aukera dute, eta, gainera, seme-alabekin aniztasuna, elkartasuna edo empatia bezalako baloreak lantzeko aukera paregabea da.

NOR IZAN DAITEKE HARRERA-FAMILIA

Ez da baldintza berezirik behar. Edozein familia izan daiteke harrera-familia; bakarrik bizi diren pertsonak ere izan daitezke, eta seme-alabak edukitzea ere ez da beharrezkoa. Haurraren egoteko denbora eta go-goia edukitzea da baldintzarik garrantzitsuena.

Edonor izan daiteke harrera-familia; bakarrik bizi diren pertsonak ere izan daitezke, eta seme-alabak edukitzea ere ez da beharrezkoa

Haur sahararren bidaia gastuak *Oporrak Bakean* programak eta tokian tokiko erakundeek hartzen dituzte bere gain, eta harrera-familiak etxean haur bat gehiago edukitzeak egunerokoan dakartzan gastuei aurre egin behar die. Harrera-familiaren konpromisoa da haurra elikatzea

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



GUREN ZUMALDE
HARRERA-FAMILIA

Harrera-familiak eskatzen zituen telebistako iragarki bat ikusita animatu ginen haur saharar bat ekartzera duela hiru urte. Esperientzia intentsoa da, lana ekartzen du, baina, era berean, aberasgarria ere bada. Iaz haur saharar bat ekarri zuten Oñatiko 5 familietatik 4k errepikatu egingo dute aurten eta hori adierazgarria da. Haurrak hezur eta azal etortzen dira, eta bueltan osasun hobearekin doazela ikustea pozgarria izaten da.



MARIA SALOM
HARRERA-FAMILIA

Haurrak harreraren hartzeko gaia buruan geneukan eta, iaz, Laida Bengoari egin zenioten elkarrizketa irakurri ondoren animatu ginen. Laidak berak eman zigun informazioa eta, egin esan, esperientzia aberasgarria izan da, oso potentea, oso polita. Beldur batzuk bageneuzkan (hizkuntza, kultura, elikadura...), baina azkenean konturatzen zara maitasuna dagoela gauza material guztien gainetik. Ikaste prozesu bat izan da.



MARIA DE LA NATIVIDAD
HARRERA-FAMILIA

Aspalditik neukan haur saharar bat ekartzeko gogoia, eta, iaz, aurre-jubilatu egin nintzenez, *Farah* izeneko 8 urteko neskatila ekarri genuen. Oso irripartsua da eta, egia esan, gauzak oso erraz ipini zizkigun. Janariarekin arazotxoren bat izan genuen, fruta eta barazkiak jatea nahi nuelako, baina, oro har, oso esperientzia polita izan da. Gainean egon behar da, baina esperientzia ederra da.



OLATZ LAMARIANO
HARRERA-FAMILIA

Bi urte daramatzagu *Ahmed* izeneko mutikoa udan ekartzen eta, egia zor, esperientzia oso ona da, ezin hobea. Beldur ginen hizkuntza aldetik nola moldatuko ote ginen, baina uste baino askoz errazagoa izan da. Oso intentsua izaten da eta denbora asko eskaini behar zaio, baina oso pozik gaude, berriro ikusteko gogoz. Urtean zehar ere berba egiten dugu, ikasitako euskara galdu ez dezan.

eta bere babes edo zaintzaz arduratzea, ahalik eta baldintza egokienetan egon dadin. Edozein modutan, edozein arazoren aurrean familiek *Oporrak Bakean* programako koordinatzaileen laguntza eta babesa izaten dute une oro. Euskal Herritik kanpora oporretan joateko

aukera ere badago, baina Espainia barruan betiere.

Hemengo klimaz, naturaz, janariaz... goatzeko aukera ematea gauza handia da basamortuan bizi diren haur horientzat, eta gure esku dago hori eskaintzea. Beraz, dei egiten zaie herriko familiei elkartasun keinu txiki ho-

ri egitera, beraiek ere izugarri gozatuko dutelako.

INFORMAZIOA

Inor interesatuta baldin badago, Oñatin *Oporrak Bakean* programa kudeatzen duen Laida Bengoarengana (675 702 747) jo dezake, inongo konpromiso barik, eta be-

ra saiatuko da familiak izan ditzakeen galdera, kezka edo beldurren inguruko argibideak ematen. Bestela, <https://oporrabakean.eus> webgunean ere irakur daiteke programaren inguruko informazioa. Aurtengo kanpainarako izena emateko azken eguna apirilaren 14a da.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

LAGUN LEKU elkartearen SUSPERRALDIA

Otsailaren 12az geroztik egunero zabaltzen dute lokala, astelehenetik ostiralera (17:00-20:00), ekintza egitarau zabalarekin: lesio eta erorketak prebenitzeko tailerra, bingoa, pintxo-potea, mahai-jolasak, memoria tailerra...

Pandemia ondoren aldizka funtzionatu izan du Lagun Leku elkarteak, jai egun seinalatuak (San Blas, San Juan, Santa Lutzia...) ospatuz eta noizean behingo ekitaldiak antolatuz. Baina otsailaren 12az geroztik lokala egunero zabaltzen hasi dira berriz ere, eta jendearen erantzuna uste baino hobea izaten ari da, bertako juntako kideek aitortu digutenez.

Astelehenetik ostiralera zabaltzen dute lokala (17:00-20:00), eta egunero daukate ekintzaren bat. Astelehenetan lesioak eta erorikoak prebenitzeko, eta auto-masajeak egiten ikasteko tailerra; asteartetan bingoa, asteazkenetan pintxo-potea, ostegunetan mahai-jokoak eta ostiraletan memoria tailerra.

Bingoa da jende gehien erakartzen duen aktibitatea, baina memoria tailerra ere oso arrakastatsua izaten ari da eta ostiralero 25 lagun-plazak beteta daude elkartzen dira burua lanean

jartzera, Sara Alava gizarte laguntzailearen gidaritzapean.

Gainerako ekintzetan ere andra-gizon ugari elkartzen dira Lagun Lekun, eta bertako juntako kideak oso pozik eta, aldi berean, pittin bat harrিতuta ere badaude aktibitateak izaten ari diren erantzun onarekin. "Ez genuen uste hain denbora gutxian hainbeste jende hasiko zenik", aitortu digute Nieves Barrenak eta Marilo Unzurrunzagak.

USTEKABEKO LAGUNTZA

Lagun Leku elkarteak bizi duen susperraldi hau Andres Orlando argentinarrari zor zaio, neurri handi batean. Gomiztegiko artzain eskolan ikasten ari den 30 urteko mutila da bera, eta goizez eskolara joan ostean, arratsaldero Lagun Leku elkartera joaten da aktibitate ezberdinetan laguntzera.

"Aspalditik genbiltzan lokala irekitzeaz, ixteaz eta adineko pertsoneri arreta es-



BINGOA Asteartetan aretoa betetzen da bingoan aritzeko.



MEMORIA TAILERRA Ostiral arratsaldetan 25 gizon-emakume elkartzen dira garunak lanean jartzera.



PINTXO-POTEA Asteazkenetan egiten dute. LAGUN LEKU

kaintzeaz arduratuko den norbaiten bila", azaldu digute Marilok eta Nievesek. "Laguntzeko prest gaude gu, eta ahal dugunean hemen ibiliko gara aktibitateak antolatzen, baina ezin gara arratsaldero egon, 17:00etatik 20:00etara. Derrigor behar dugu norbaiten laguntza". Eta hala jakinarazi zioten Udalarari, baina tekla egokiarekin asmatu ezinik zebiltzan, Andres iritsi zen arte. "Egia esan, zerutik erorita bezala etorri zaigu Andres. Geriatrian ikasketak eta lan-esperientzia dituen pertsona bat da, eta bete-betean sartu da Lagun Lekun; oso aktiboa da, oso adi dago adinekoekin, eta, noski, Lagun Lekura joaten den jendea oso gustura dago berarekin, baina...".

Baina Andres ekaina edo uztailean arte egongo da Oñatin. Gero, seguruenik, alde egingo du, eta, noski, Lagun Leku lehengo egoeran egongo da berriz ere, lokala egunero atenditzeaz arduratuko den pertsona barik. "Oso zaila izango da Andres bezalako beste bat aurkitzea, baina horixe da gure lehen-tasuna epe motz-ertainean, lokalean egunero (17:00-

20:00) egongo den persona bat aurkitzea", adierazi digute juntako ordezkariak.

Beste arantzatxo bat ere badute Lagun Lekun, Marilok eta Nievesek azaldu digutenez. "Astean bi egunetan, goizez (10:00-12:00) Eguneko Arreta Zerbitzua ematen da Lagun Lekun, baina oso jende gutxi dabil, eta pena da. Udalaren zerbitzu bat da eta dabilen jendea oso gustura dago, baina, ez dakigu zergatik, ez du erantzun onik izan. Uste dugu informazio faltagatik izan daitekeela eta, horregatik, informazio-hitzaldiren bat antolatu nahi genuke zerbitzuari bultzadatxo bat emateko asmoz".

LAGUN LEKUK 10 URTE

Ekainean hamar urte bete-ko dira Lagun Leku elkarteak inauguratu zela, ETEOko taberna izandako lokalean, Olakua eta San Lorentzoko hainbat erretiraturen ekimen eta auzolanari esker. Gero, urte eta erdiz lokal barik egon ziren, Eltziako eraberritze lanak tarteko, eta 2018ko apirilean inauguratu zuten gaur egungo lokala, Eltziako lehen solairuan, klaustroko berdegunearen parean.



Marilo Unzurrunzaga eta Nieves Barrena, Lagun Lekuko juntako kideak, Andres argentinarrarekin

"Andresen laguntzari esker hasi gara lokala egunero zabaltzen, baina uztailean joan egingo da eta lehen bezala egongo gara. Gu ezin gara egon hemen arratsaldero; norbaiten laguntza behar dugu, derrigor

MARILO UNZURRUNZAGA ETA NIEVES BARRENA
LAGUN LEKUKO JUNTAKO KIDEAK

"Hamar urte hauetako balantzea oso positiboa da, inongo zalantza barik", esan digute Marilok eta Nievesek. "Auzoko jende askok elkar ezagutzeko aukera eman digu eta, batez ere, azpimarratzekoa da proiektu hau aurrera ateratzeko zenbait jendek erakutsi duen borondatea, eskuzabaltasuna eta lana egiteko prestutasuna: konponketak egiten, margoitzen, meriendak antolatzen... Giro horretan atera da aurrera hau. Jendea pozik eta oso eskertuta dago".

Lagun Leku elkarteak ez dauka bazkiderik eta nahi duten herritar guztientzat dago zabalik.

Zure konfidantzazko tailerra izaten jarraitzen dugu!



MANTENTZE-LANAK,
KONPONKETA ETA KARROZERIA
MARKA GUZTIAK

OÑATI
GARAJEA



Gure zerbitzuen kalitatea bermatzen dugu. Zatoz eta kontsultatu eskaintzen ditugun baldintzak!



MANTENTZE-LANAK
NEUMATIKOAK
KLIMATIZAZIOA
AMORTIGUAZIOAK
FILTROAK
FRENOAK
DISTRIBUZIOA
IAT-ITV

Astelehenetik ostiralera
8:30-12:30
14:30-18:30

Oñati Garajea
Goribar auzoa, 9
20560 Oñati - Gipuzkoa
garageonati@euskalnet.net
Tel. 943 78 13 50

'Arantzazu. 36 zm, 5 mende, herri bat' dokumentala aurkeztuko da Oñatin apirilaren 12an


> 500 urteko historian Arantzazuk herriari egindako ekarpen **sozial, kultural** eta **espirituala** ezagutzera ematen du dokumentalak.

> **Eñaut Elorrietak** musikatuko du ekitaldia eta, ondoren, dokumentaleko parte-hartzaileen arteko solasaldia egongo da

Arantzazulab-ek sustatuta-ko 'Arantzazu. 36 zm, 5 mende, herri bat' dokumentala aurkeztuko dute Oñatin, apirilaren 12an (Santa Ana aretoa, 19:00). Pello Sarasuak zuzendu du lana eta santutegiko ondarea ez ezik, Arantzazuk herriari egindako ekarpen sozial, kultural eta espirituala erakustea du helburu, hainbat testigantza bidez.

Fraide frantziskotarrek 500 urtetik gora daramatzate Arantzazun, eta beraien motibazio erlijiosotik ondare immaterial baliotsua eman dio-

te herriari arlo ezberdinetan, ausardia jokatzuz eta berrikuntza sustatuz, betiere. Hori ulertzea zaila izan daiteke fraideez izan dezakegun ikuspegi esterotipatu batetik. Hori dela eta, dokumentalean bi begirada uztartzen dira: barrura begirakoa (zazpi frantziskotarren parte-hartzearekin), eta kanpora begirakoa, Arantzazurekin modu batean edo bestean harreman esanguratsua izan duten hainbat pertsonen testigantza bidez (Joseba Intxausti -dokumentala edizio fasean zegoela zendu zen-



Santa Ana antzokian izango da aurkezpena, 19:00etanx

Apirilaren 13, 14 eta 15ean kultur etxeko ohiko zine emanaldietan ikusi ahal izango da dokumentala

Lorea Agirre, Jon Sarasua, Izaskun Andonegi, Miguel Alonso del Val, Xabier Euskitze, Alazne Guridi... *Arteman* komunikazio agentziak ekoitzi du lana, eta EITB zein Berria taldeen babesa ere izan du.

HERRIZ HERRI

'Arantzazu' dokumentala ZINEBI (Bilboko Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia) estreinatu zuten azaroaren 16an eta aurkezpen ofiziala Gandiaga Topagunean egin zen azaroaren 28an, Jaurlaritza, Foru Aldundia, Oñatiko Udala, Eusko Ikaskuntza, Kutxa, Mondragon Koporazioa eta euskal unibertsitateetako ordezkariak bertan zirela. Hemenetik aurrera herriz-herri ikus-teko aukera egongo da eta Oñatikoa izango da lehenengoetako geltokia.

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati


EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

Oñatik Euskal Errepublika aldarrikatu zueneko

1931ko apirilaren 21ean Euskal Errepublikaren aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak

Apirilaren 21ean 93 urte beteko dira Oñatiko udalbatzak Euskal Errepublikaren aldeko mozioa onartu zuela. 1931n izan zen, Espainian erregimen berria ezarri eta astebetetera. Urte hartako apirilaren 12ko udal hauteskundeetan izandako emaitzak ikusi eta gero, Alfonso XIII erregeak, herriaren konfiantza galdu zuela pentsaturik, bere kargua utzi eta ihes egin zuen atzerrira, Espainiako II. Errepublika aldiari bidea irekiz.

Gure inguruan eibartarrak izan ziren goiztiarrenak errepublika aldarrikatzen, apirilaren 14an, goizean goiz. Oñatin ere, ordu batzuk geroago izan arren, egun berean aldarrikatu zuten erregimen berria, *Marsellesa* ereserkiaren doinua lagun zutela, *Gerrako Garrak Oñatin* liburuan irakur daitekeen moduan. Zentro Errepublikano-ko presidente Guillermo Martinezek gertaeraren inguruko hitzaldia egin zuen. Handik egun gutxira, apirilaren 18an, beste ekitaldi bat antolatu zuten Oñatiko errepublikazaleek; orduko hartan *Riegoren himnoa* (II. Errepublikak ereserki ofizialtzat hartu zue-



na) eta *Gernikako Arbola* ere entzun ziren.

Hauteskundeetatik ateratako udalbatza berriak apirilaren 21ean egin zuen lehen bilkura, eta bertan onartu zen Euskal Errepublikaren aldeko mozioa. Udal artxibategian eskuratu digute egun hartako akta eta hauxe irakur daiteke bertan. “*En este momento histórico en que ha desaparecido el régimen des-*

tructor de nuestra libertad política como nación, ante el hecho de la nueva estructuración del Estado español, la mayoría nacionalista vasca del Ayuntamiento de Oñate, después de afirmar los derechos naturales históricos que como tal nación le corresponden, reclaman como primer acto de autodeterminación del País Vasco, la proclamación de la República Vasca, confederada a las demás Repúblicas Ibéricas. A tal fin, significa su enérgico apoyo hacia quienes en tierra vasca pugnan por el cumplimiento de cuanto en este orden se estableció en el solemne pacto de Donostia, y piden que, adoptado por la Corporación este acuerdo, se transmita inmediatamente al Presidente del Gobierno Provisional”.

Apirilaren 12ko udal hauteskundeetan, ordura arte ez bezala, EAJk lortu zuen gehiengoa —10 zinegotzi; gai nontzeko laurak jaimisten (karlistak) eskuetara joan ziren—, eta zinegotzi abertzaleen babesarekin onartu zuen mozioa udalbatzak, Javier Zelaia alkate zela. Zinegotzi karlistek aurka bozkatu zuten.



Ezkerreko argazkian, Alcala Zamora Espainiako presidentea Oñatin

GERRAKO GARRAK OÑATIN

Eskuman, errepublika aldarrikatu zuten zinegotzietako batzuk erbestean, gerra lehertu ostean, 1937an



 **carpintería GARIBAI aroztegia**

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK

LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

'Oñati Bizirik' BOSGARRENA

> 'Oñati Bizirik' saileko bosgarren diskoa plazaratu du Antixena gaztetxeak. Herriko 13 taldek eta 5 bakarlarik parte hartu dute.

> Apirilaren 6an aurkeztuko dute.



Astudillo eta Zubia teknikariek jardun dute diskoa grabatzen. CDaren azala Sofia Moralesek diseinatu du.

Prest dago, jada, 'Oñati Bizirik' bildumako disko berria, bosgarrena, herriko 18 musika talde eta bakarlariren abesti bana biltzen dituen, eta Oñatiko musika eszenak bizi duen une gozo eta emankorra erakusten duena, nolabait.

2005ean sortu zen lehen *Oñati Bizirik* diskoa plazaratzeko ideia, Kasablankako gaztetxean. Hasiberriak ziren eta baliabide tekniko nahiz ekonomiko urriak zizutuzten taldeei beraien musika grabatzeko aukera ematea zen helburua. Aurreneko CD hura Gaztelekuan grabatu zen 2006an, Kasablankako gaztetxea eraitsia izan zelako. Gerora etorri ziren *Oñati Bizirik-2* (2009), San Martingo gaztetxean grabatu zena, eta *Oñati Bizirik-3* (2013) eta *Oñati bizirik-4* (2018), azken biak Antixena gaztetxean grabatuak.

Eta ikusirik azken disko hartatik urtetxo batzuk igaro dira eta herriko musikaren eszena oso bizirik dagoela, CD berria ateratzeko unea dela pentsatu dute Antixena gaztetxean, musika arloan herrian dagoen aberastasun eta aniztasunaren erakusle izango den bilduma bat.

DISKORIK ANITZENA

Oñati Bizirik bilduman orain arte grabatu den diskorik anitzena izango da bosgarren hau, bai talde kopuruari dagokionez, eta baita estilo aldetik ere; aurreneko bi CDetan punk doinuak ziren nagusi, eta ondorengo bietan *rock&rolla* eta bakarlaririk sartuz joan ziren, eta baita erromeria giroko musika eta pailazoak, besteak beste. Disko berrian tekno musikak ere izango du lekua aurreneko aldiz.

Aldatu ez dena, diskoaren esentzia da. Aurreko laurak bezalaxe, azken hau ere autokoitzitako eta autofinantzatutako lana da, gaztetxearen oinarrietako batekin — autogestioa — bat eginez. Guztira 13 taldek eta 5 bakarlarik parte hartu dute, aurrez argitaratu gabeko kanta banarekin. Martxoaren 1 eta 2an egin ziren grabaketak gaztetxean, Iñaki Zubia eta Imanol Astudillo musika teknikarien laguntzarekin, eta apirilaren 6an aurkeztuko dute CD berria. Diskoaren azala eta barrualdeko liburuska Sofia Moralesek diseinatu ditu, eta *merchandising* materiala ere atera dute.

PARTAIDEAK

Estilo ezberdinetako 13 taldek eta 5 bakarlarik parte hartu dute diskoan

Taldeak

- Lehen Lerroa.
- Estolda
- Inguma.
- Zentzu Okerra
- Lee Kore
- Sukena
- Hamarratz
- Lizartxo
- Malko

- Gassius Clay

- Larru Beltzak
- Osaba Kimu
- Letagin

Bakarlaririk

- Aiert
- Aitor Regueiro
- AutoreerotuA
- Kepix
- Plaxa (bakarrizketa).

DISKOAREN AURKEZPENA

Apirilaren 6an aurkeztuko dute diskoa. Egun osoko egitaraua prestatu dute.

Antixena gaztetxean egun osoko egitaraua prestatu dute '*Oñati Bizirik-5*' diskoa aurkezteko. Apirilaren 6an, larunbata, egingo da aurkezpena. Goiz partean (11:00-14:30) herriko artisauen azoka egongo da gaztetxean bertan; eguraldia ona bada, kanpoaldean, bestela barruan. Gero (15:00), bazkaria egongo da gaztetxean —tiketak Arranon salgai— eta *AutoreerotuA*-k jarriko dio musika bazkalosteari. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da diskoaren aurkezpeneko kontzertua -CDan parte hartu duten 8 taldek joko dute-. Sarrerak 5€ balioko du, baina sarrerarekin batera diskoa eskuratuko da eta, bestalde, diskoaren harira atera duten *merchandising*-a erosteko aukera ere egongo da.

MAHAI-INGURUAK

Euskal Herriko eta Oñatiko musika eskenaren egoera mintzagai

'Oñati Bizirik-5' diskoaren harira, bi mahai-inguru antolatatu ditu Antixena Gaztetxeak. Lehenengoan Euskal Herriko musika eskena izango dute mintzagai, eta bigarrenean Oñatiko.

APIRILAK 10, asteazkena / Kultur etxean, 19:00

'Begirada bat euskal eszenari'

- Aurkezlea: Itziar Ugarte, kazetaria.
- Partaideak:
 - Amets Aranguren (*Ibil Bedi* taldeko kidea)
 - Lide Hernando (*Liher* taldeko abeslaria)
 - Jurgi Ekiza (Willis Drummond-eko abeslaria).

APIRILAK 17, asteazkena / Kultur etxean, 19:00

'Oñatiko musikaren iragana eta oraina'

- Aurkezlea: Aitziber Aranburuzabala, kazetaria.
- Partaideak:
 - Aitor Regueiro, musikaria
 - 'Pototo' musikari ohia
 - Iñigo Biais 'Bull', musikaria
 - Naia Herraiz, *Sukena* taldekoa



Orain arteko 4 diskoak plataforma digitaletan

Oñati Bizirik ekimena abian jarri zenean artean ez zegoen plataforma digitalik gaurko eran. Gainera, aurtengo diskoan parte hartu duten hainbat gaztek ekimen hau ezagutu ere ez zutela egiten ikusirik, orain arteko lau diskoak plataforma digital nagusietara (*Spotify, Youtube*,...) igotzea erabaki du Gaztetxeak, Antixenaren kontu batean. Disko berria ere laster entzun ahal izango da bertan. Hauek dira orain arteko 'Oñati Bizirik' bilduman grabatutako CDak:

- **Oñati Bizirik-1** (2006-Kasablankako gaztetxea / Gaztelekua): Patxi Katarro y Los Vagueza, *Crónica, Krimen, Sospechosos, Triskantzak, Drakes* eta *Kontralei*.
- **Oñati Bizirik-2** (2009-San Martingo gaztetxea): *Bereziak, Ez!, Drakes, Bitz, Galdu Arte* eta *KKK*.
- **Oñati Bizirik-3** (2013-Antixena gaztetxea): *Ixilik, Zuen Azkena, Beneh, Obstrucción Nasal, Ander Etxaniz, Gela Berezia, Gomiztegiko Artzainak, Buru Hilketak* eta *Aran&Laket*.
- **Oñati Bizirik-4** (2018-Antixena gaztetxea): *Pobresiak, Valls eta Izar, Aitor Regueiro, Iker Martinez, Potx eta Lotx, Gaitzerdi, Herstura, Broken Legacy, Zuen Azkena, Utopia, Txua*, eta *Urko Arregi* (bertsoa).

KONTZERTU BIRA

Igorren, Arrasaten eta Iruñean aurkeztuko dute zuzenean diskoa

'Oñati Bizirik-5' diskoa aurkezteko bira txiki bat ere antolatatu du Antixena gaztetxeak. Igorre eta Iruñeako emanaldietarako autobusa antolatuko da Oñatitik.

MAIATZAK 4, Igorre / Kiñu gaztetxea, 20:00

- Hamarratz
- Zentzu Okerra
- Sukena

MAIATZAK 18, Arrasate / Gaztetxea, 20:00

- Aitor Regueiro
- Aiert
- Malko
- Letagin
- Lizartxo

EKAINAK 1, Iruñea / Aitzina taberna, 21:00

- Osaba Kimu
- Inguma
- Lee Kore
- Larru Beltzak



Bizikleta segurtasunez nola aparkatu

Bizikletak modu seguruan, lapurretak ekidinez, eta egoki, oinezkoei traba egin gabe, aparkatzeko gomendioak biltzen dituen kartela diseinatu dute **Bagabiltz** programaren baitan

Bizikleta emisio kutsatzailerik gabeko ibilgailua da. Oñatitik modu aktiboan mugitzeko aukera ematen du ingurumena eta beraz, pertsona guztien osasuna zainduz. Bizikleta aparkatzeko orduan, errutina batzuk jarraitu behar ditugu, aparkatuta uzten dugunean ere seguru egon dadin, lapurretak ekidinez eta oinez doazen pertsonen traba egin gabe. Udalak eta Oñatiko ikastetxeek mugikortasun osasuntsua, jasangarria eta segurua elkarlanean sustatzeko indarrean duten **Bagabiltz** programaren baitan bizikleta egoki eta seguru aparkatzeko erabiltzaile guztientzako gomendioak biltzen dituen kartela diseinatu dute. Laster, udalerriko bizikleta-aparkalekuetan jarriko dira, eta ikastetxeetan banatu.

Nola aparkatu nire bizikleta

Bizikleta emisiorik gabeko ibilgailua da. Oñatin zehar mugitzeko aukera ematen digu, ingurumena eta pertsona guztien osasuna errespetatuz. Aparkatzeko errutina batzuk jarraitu behar ditugu, aparkatuta uzten dugunean ere kalte gabe eta seguru egon dadin.

Non aparkatu?

Erabili eskura edo hurbilen dauden bizikleta-aparkalekuak.

Errespetatu beti oinezkoen mugikortasuna, ez aparkatu oinez ibiltzeko behar diren espazioetan.

Toki argiztatuetan aparkatu.

Nola lotu bizikleta

Oso seguru **Ez seguru**

Seguru **Seguru**

Lotu beti koadroa eta gurpiletako bat. Bi giltzarrapo badituzu, lotu bi gurpilak eta koadroa. Irudietan azaltzen da nola egin.

Giltzarrapo bakarra

Nola lotu bizikleta segurtasunez giltzarrapo bakarra baduzu?

Ziurtatu bizikleta ondo finkatuta dagoela, ez dela desorekatuko.

Giltzarrapo zurruna erabili. Adibidez, **U** zurrunaren modukoa, gogorragoa da. Kable-dun giltzarrapoak mozteko errazagoak dira.

Seguru **Ez seguru**

Jarri giltzarrapoak ahalik eta goren. Lurrarekin kontaktuan badaude errazago irekitzen dira.

OÑATI dabilen herria

Bagabiltz

Goiko irudikoa bezalako kartelak jarriko dira herriko bizikleta-aparkalekuetan **BAGABILTZ**

Oñabike

oñabike.com

Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

“BEHAR DUZUN ZUNTZAK OPARIA DAKAR”

ZUNTZA 500Mb

+ MUGIKORRA 48GB⁶⁰

+ DEI MUGAGABEEKIN

39,90€ /HIL

AGILE TELEBISTA 6€/HIL

Eta dohainik **eraman aire**
bidezko TRISTAR frijigailua
edozein mugikor + zuntza tarifa
kontratatur



PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:

LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



BEZ bane. Docko instalazioa. Iraupena 3 hilabete. Prezio honek lehenengo 12 hilabeteetarako balio du, ondoren 42,90€. Aire bidezko ... frijigailuaren opari-promozioa 2024ko otsailaren 1etik 29era, edo stocko amaitu arte, LIZKER Informatika dendan MÁSMÓVIL-eko edozein mugikor + zuntza tarifa kontratatur. Oparia, zuntza instalatutakoan eskatu daiteke. Konturatu gainerako baldintzak LIZKER Informatika dendan.

MÁSMÓVIL
AHORRA, SIN MÁS



Gobernatzeko prest daudela esan du Maddalen Iriartek

Egungo gobernuaren eredia agortuta eta gainbeheran dagoela adierazi du EH Bilduren Gipuzkoako eledunak

Egungo egoera politikoaz jardun zuen Maddalen Iriartek, EH Bilduren Gipuzkoako bozeramaleak, martxoaren 19an Oñatiko Bilgunean egindako solasaldian. EH Bilduk bizi duen une gozoa estrategia politiko arrakastatsu baten ondorioa dela esan zuen. “Erabakiak eta arriskuak hartzea eskatzen zuen estrategia batek ekarri gaitu hona. Espainiar estatuko aukera leihari eszeptizismo handiz eman genion bide, eta Nafarroan ere kontraesan handien kudeaketa egin dugu, baina apustu horiek emaitzak ekarri dituzte”.

Estatu mailan hiru eremutan eragitea planteatu zuen EH Bilduk, eta horietako bitan —arloan sozialean eta presoen sakabanaketa politikoaren amaieran— urrats nabarmenak eman dituztela esan zuen Iriartek. Nazio aitortpenaren inguruan, berriz, ezer gutxi lortu dela aitortu zuen, baina nazio eta gizarte askapenaren ikuspegitik urrats kualitatiboak egiteko garaian gaudela esan zuen.

Apirilaren 21eko hauteskundeei begira, EH Bilduren joera goranzkoa dela esan zuen. “Herritarrek beste politika batzuk eta gobernatzeko beste eredu bat nahi dute, egungo gobernuaren eredia agortuta dagoelako eta gainbeheran dagoelako”. Gobernatzeko prest daudela nabarmendu zuen, baina ez gobernatzea ez dela “drama politiko” bat izango. “Gobernatu ez arren, baditugu proposamenik etxebizitzarako, osasungintzarako edo klima larrialdiari aurre egiteko, adibidez, eta horiek aurrera eramaten saiatuko gara”.



Debagoieneko EAJk aitortza egin dio Aloña Mendiri

Kirol zaletasuna eta balioak uztartuz egiten duen lan eredugarria txalotu dute jeltzaleek

Debagoieneko EAJk aitortza egin nahi izan dio aurten 75. Urteurrena ospatzen ari den Aloña Mendi kirol elkarteari, kirol zaletasunaren eta herrigintzaren alde egiten duen “lan eredugarria” txalotuz. Hala, eskualdeko jeltzaleen ordezkariak batek oroigarri bana eman zien Anton Inzari eta Javi Azpiazuri, klubeko ordezkariak, martxoaren 19an Azkoain gainean egindako ekitaldian.

“Aloña Mendik ezin hobeto hezurramitzen ditu kirol zaletasuna eta balioen defentsa”, adierazi zuen Marijo Etxegoienek, Legebiltzarrerako hautagai oñatiarrak. “Kirol lehiak haratago, Aloña Mendik izugarritzko ekarpena egiten dio herriri, kirol heziketaren ikuspuntutik, kirol zaletasunetik, herrigintzatik, berdintasunetik, lankidetzatik eta osasunaren ikuspuntutik. Horixe da defendatu eta zabaltzen jarraitu beharreko eredia, eta horretarako alboa behar ditu erakundeak, zerbitzuak, ekipamendua eta sostengua eskainiz”.

EAJko kirol arduradun Gorka Iturriagak boluntariotzaren garrantzia azpimarratu zuen. “Tamalez, kirol klub askotan boluntario-krisialdia ari gara bizitzen, eta elkarte historiko eta garrantzitsu askoren eredia ari da kolokan jartzen”. Aloña Mendi bezalako elkarteen sustraia eta oinarria lan boluntarioa dela adierazi zuen, eta, beraz, baluntariotza lana sustatu eta indartzen jarraitzeko deia egin zuen, “kaltea eten ez dadin”.

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

A-21 HAUTESKUNDEAK

Posta bidezko botoa eskatzeko azken eguna apirilaren 11a da

Apirilaren 21eko Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeetan botoa posta bidez eman nahi duten herritarrek **apirilaren 11ra arteko** (egun hori barne) epea dute eskaerak egiteko.

Horretarako, EAEko Hautesle Erroldan inskribatuta daudela egiaztatzen duen ziurtagiria eskatu behar da posta bulegoan. Ziurtagiria telematikoki ere eska daiteke Correos-eko webgunearen bidez (BakQ ziurtagiria edo NAN elektronikoa erabiliz). Posta bidezko botoa eskatzen duten herritarrek adierazitako helbidean jasoko dute dokumentazioa, eta **apirilaren 17ra** arteko epea izango dute botoa emateko posta bulegoan.

HIRU OÑATIAR

Alderdi politikoei aurkeztu dituzten hautagaitzetan hiru oñatiarren izenak ikusi ditugu. **Alberto Alonso Martin**, azken legegaldian legebiltzarkide izan dena, PSE-EE alderdiaren Arabako zerrendan laugarren agertzen da. **Marijo Etxegoien Arzuaga** EAJren Gipuzkoako zerrendako hamargarrena da, eta **Maialen Urzelai Azpiazu** EH Bilduren zerrendako lehen ordezkoi izendatu dute.

Duela lau urte, 2020ko uztailaren 12an egin ziren EAEko hauteskundeetan **EH Bildu** (2.962) izan zen alderdi bozkatuena Oñatin, **EAJK** 2.115 boto jaso zituen, **PSE-EEK** 217, **Podemosek**(186), **PP+Csek** 78 eta **Equo Berdeak**-ek 39.



Gorka Artola, Mankomunitateko Ogasun batzordeburua, Dorleta Elkorobarrutia, lehendakaria, eta Xabier Igartua, lehendakariordea

Epeleko zabortegia berriz ez irekitzea erabaki du Mankomunitateak

Ingurumen zerbitzuek egindako txosten teknikoaren arabera, ez ditu gutxieneko segurtasun faktore geoteknikoak betetzen

Ingurumen zerbitzu teknikoak idatzitako txostenean oinarrituta, Epeleko zabortegia berriz ez irekitzea erabaki du Debagoieneko mankomunitateko gobernu juntak. Eskualdeko udalen elkarteko ingurumen zerbitzuak egindako txosten teknikoaren arabera, Epeleko zabortegiak ez ditu betetzen berriz irekitzeko baldintzak. Mankomunitateak bi ikerketa geotekniko egin zituen 2022an eta 2023an, zabortegiaren egonkortasun egoera zein zen jakiteko, eta ondorioztatu da ez dituela Ingurumen Baimen Bateratuan (IBB) ezarritako gutxieneko segurtasun faktore geoteknikoak betetzen, hondakin gehiago jaso ahal izateko. Egunkortasun geoteknikoa bermatzeko aukera bakarra zabortegitik hondakinak ateratzea litzatekeela ondorioztatu du txostenak.

Gainera, txosten teknikoek azaltzen dute zabortegiaren azpitik doan ur garbieraren egoera kaxkarra dela, eta zabortegiaren berririkierak ondorio tekniko eta ekonomiko kaltegarriak eragin zitzakeela. Hirugarren arrazoi bat ere bada, eta zera da, zabortegiko zelda zaharra inpermeabilizatzeko erabili zen sistemak ez duela gaur egungo inpermeabilizazio sistemen eraginkortasuna betetzen, ezta IBB-k dioena ere.

ZIGILATZE LANAK

Gogoratu, Epeleko zabortegia itxita dagoela 2018az geroztik, baina Zaldibarko hondamendiaren ondoren, —2020ko otsailaren 6an amildu zen—Eusko Jaurlaritzak eta De-



2018az geroztik itxita dagoen Epeleko zabortegiaren aireko ikuspegia. BERRIA

bagoieneko Mankomunitateak hitzarmen bat egin zutela Epele berririkitzeko aukerak aztertzeko, industria-hondakin ez arriskutsuen zabortegiaren mapan sortutako gabeziari aurre egin asmoz. Jaurlaritzak aurreikusten zuen Epelek 450.000 tona hondakin jasoko zituela 2030era arte.

Orain, baina, Ingurumen zerbitzuek egindako ikerketa teknikoan oinarrituta, mankomunitateak erabaki du zabortegia berriz ez irekitzea. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak Epele berreraiki ahal izateko 2021ean eman zion dirulaguntza —erabili ez den dirua— bueltatu beharko du. Bestalde, Mankomunitateak iragarri du zabortegiaren zigilatze lanak egiteko prozedura abian jarriko duela.



Autokarabanentzako aparkalekuaren ondoan egokitu dute barra-parkea

Kalistenia parkea erabilgarri dago jada San Martin auzoan

Erabilgarri dago, jada, Udalak San Martin auzoan, autokarabanentzako aparkalekuaren ondoan, egokitu duen Kalistenia parkea, 15x5 metroko gunean. Goiko argazkian ikus daitekeen moduan, altura eta ezaugarri ezberdinetako barraz osatutako parkea da, eta norberaren gorputzaren pisua baliatuz gorputzeko gihar-talde gehienak (bularra, bizkarra, hankak...) indartzeko ariketak egiteko aukera ematen du aire librean.

2023-2024 Partaidetzazko Aurrekontuak prozesuaren baitan herritarrek hautatutako azken proposamena -bideratzigarrena- izan zen, 148 botorekin (%18,12). Udal brigadako langileek prestatu dute kalistenia parkea egokitzeko zorua, eta barra-elementuen horniketa eta instalazioa Hobby Kirolak enpresak egin du 21.800 euroko aurrekontuarekin.

Termiten mapari buruzko informazio saio irekia antolatu du Udalak

Herrigune historikoan dauden egurrezko egiturak aztertzeko zerbitzua kontratatu du Udalak eta horren berri emateko informazio saioa egingo da **apirilaren 16an**, kultur etxean

'Oñatiko termiten mapa' egin nahi du Udalak, eta horretarako Tecnalia enpresa espezializatua kontratatu du. Herriguneko eta, batez ere, alde zaharreko egurrezko eraikinen egoera zein den eta termitek eragin ote dieten jakitea da helburua.

Udalak kontratatu duen enpresak egingo du eraikinen ikuskapena, baina horretan hasi aurretik, informazio saio irekia antolatu du Udalak, proze-

suaren berri herritarrei emateko. **Apirilaren 16an** izango da saioa, **kultur etxean, 18:00etan**.

Udalak ohar bana jarriko du ustez egurrezko egitura duten eraikinetako atarrietan, informazio saioaren berri emateko, baina, atariren batean, eraikinaren egitura egurrezkoa izan arren oharririk jarri ez bada, udaletxeko Hirigintza zerbitzura deitzea eskatzen zaie, ahalik eta informazio osatuena eta zehatzena izateko.

Kirol teknikari plaza betetzeko deialdia egin du Udalak

2023ko enplegu eskaintza publikoan onartu zen kirol teknikari plaza jabetzan betetzeko deialdia egin du Udalak.

Hautaketa prozesura aurkezteko jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako gradu titulua edo baliokidea izatea eskatzen da. Euskarari dagokionez 4. hizkuntza eskakizunaren pareko maila.

Oposizio-lehiaketa sistema erabiliko da. Oposizio aldian lau ariketa teoriko-praktiko egin beharko dituzte. Lehiaketa fasean berriz, lan esperientzia eta prestakuntza osagarria baloratu da.

Lanpostuari buruzko argibideak eta eskabide orria www.oñati.eus atarian edo udal bulegoetan eskuragarri daude. **Apirilaren 18a** da deialdira aurkezteko azken eguna.

Udalaren kirol arloko dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago jada

Herriko kirol elkarte eta taldeei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Bi lerro bereizi dira, ohi bezala: 'A' lerroa (2.500€) kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako, eta 'B' lerroa (12.680€) ohiz kanpoko kirol jarduerak antolatzeko. Baterako zein besterako, **apirilaren 13a** da eskaerak aurkezteko azken eguna.

SOILIK TELEMATIKOKI

Eskaerak telematikoki egin behar dira ezinbestean. Ezin dira presentzialki egin udaletxeko HAZ bulegoan. Udalaren webgunean (www.oñati.eus/eu/tramiteak/dirulaguntzak/kirol-arloko-dirulaguntzak) eskura daitezke eskaerak egiteko inprimakiak.

JUANJE MARGOAK
627 818 247

Catalana Occidente
Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- Heriotza
- Autoak
- Bizitza
- Istripuak
- Oetziak
- Ostiauna
- Ebebizitza
- Aurrekia
- Labortza

Heldies: Mitxel E. behe
698 16 79 84
mikel.egana@gentes.catalanoccidente.com



Udala eta EHUko Historiaurreko taldearen arteko hitzarmena beste lau urterako luzatu dute

2019ko abenduan sinatu zen Oñatiko Udala eta Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaurreko Ikerketa Taldearen arteko lankidetzaren hitzarmena, herriko ondare arkeologiko eta paleontologikoa babestu eta ezagutzera emateko helburuarekin. Lau urterako izenpetu zen hitzarmen hura beteta, beste lau urtez luzatzea erabaki dute alde biek.

Hainbat gai garatuko dira hitzarmenaren baitan: Oñatiko udalerrian landa eremuko eta laborategiko jardueren programa; udalerriko ondare arkeolo-paleontologikoa zabalteko programa, bai esparru espezializatuan, bai dibulgazio mailan ere... Aurten 12.000€ bideratuko ditu udalak lan hauetara.

'EMAKUMEAK ETA ARKEOLOGIA: ATZO GAUR ETA BIHAR'

Udala eta EHUren arteko hitzarmenaren baitan III. Oñatiko Unibertsitatea Arkeotopaketa Jardunaldiak egingo dira apirilaren 17tik 19ra, 'Emakumeak eta arkeologia: atzo, gaur eta bihar' izenburupean.

1806-1807 ikasturteko Sancti Spiritus Unibertsitateko ikasleen zerrendan Maria Antonia de Cortazar ageri da, Errege Zuzenbideko karrerako ikasle gisa. Aurrekari historiko hori kontuan hartuta, pentsatu dute eraikin hau egokia dela egungo ikerketa arkeologikoan emakumearen espazioari buruz eztabaidatzeko. Genero-arkeologiak hainbat hurbilketa biltzen ditu emakumeen iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko zereginei buruz, kontakizun arkeologiko baten eraikuntzan genero-ikuspegia oinarri hartuta.

Larrialdietarako udal laguntzen 2024ko deialdia argitaratu da


Gizarte bazterketa arriskuan dauden herritarrei ematen zaizkien dirulaguntzak Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira, baina udaletik kudeatzen dira. Gobernuak dituen baliabideak ez dira nahikoak eskaera guztiei erantzuteko eta udalak diru-sail bat bereizten du (aurten 226.000€) Oñatiko eskaerei erantzuteko. Jaurlaritzak zehazten ditu dirulaguntza hauek jaso ahal izateko baldintzak, eta etxeko energia eta mantentze gastuetarako, alokairurako, edo beharrezko altzari edo etxetresnak erosteko eman ohi dira. Eskaerak udaletxeko HAZ bulegoan aurkeztu behar dira, baina, aurrez, udal Gizarte Zerbitzuetatik pasatzea gomendatzen da, informazioa eskuratzeko.

Kultur eragile eta sortzaileentzako dirulaguntza deialdia abian da

Bi lerro bereizten dira udaleko Kultura sailak ematen dituen dirulaguntzetan: 'A' lerroa, irabazi asmorik gabeko kultur talde, eragile edota norbanakoen proiektu, programa eta jarduerak sustatzeko laguntzak; eta 'B' lerroa, sormen lanak gauzatzeko laguntzak. Aurtengo aurrekontuetan 94.600 euroko kontu-saila dauka Udalak laguntza hauetarako; 77.000€ 'A' atalean, eta 17.600€ 'B' atalean. Baterako zein besterako, **apirilaren 15era** arteko epea dago eskaerak aurkezteko, udalaren erregistro elektronikoa (www.oñati.eus).

Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna susutzeko laguntzak

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea eta emakumeen ahalduntzea helburu duten programak eta jarduerak bultzatzea helburu duen dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Aurten aldatu egin dira pittin bat oinarriak, eta berdintasuna sustatzeko ekintzetan jarriko da fokua. Hau da, izan daitezke berdintasun arloko elkarteek antolatutako ekintzak, edo auzo-elkarte batek, kirol elkarte batek edo beste edozein eragilek antolatutakoak. Ekintza horiek ezin dute irabazteko asmorik izan eta Oñatin garatu beharko dira, Udalak diruz babestu ditzan. Aurten 8.000€ko kontu saila bideratuko du Udalak laguntza hauetara. **Maiatzaren 6ra arteko** epea dago eskaerak aurkezteko, udalaren web atarian zintzilikatu den eskaera orria beteta.



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

943 039 006 688 774 531 - WHATSAPP

OINATI@COINBROKER.EUS



Auzo-bideetako hobekuntza lanetan 150.000 euro inbertitu ditu Udalak

lazko uztailako auzo-alkateen foroan adostutako plangintzaren arabera, landa-auzoetako bideak hobetzeko hainbat lan egin ditu Udalak, *Injelan* enpresak idatzitako proiektuaren arabera. 2023an hasi eta berriki amaitu den aurtengo kanpainan Iruatz, Lezesarri, Santa Lutzia, Tokillo, Kamela, Otadui-Urzelai, Agerre, Araotz Urruti eta Lurgorrieta baserrien inguruko bideetan egin dira hobekuntza lanak. Argazkietan ikus daitezke horietako batzuk.



'Auzotasuna' programaren baitan 117.362€ banatuko ditu Udalak

Auzotasuna izeneko programaren baitan Udalak 117.362 euro banatuko ditu aurten Oñatiko 16 landa-auzoen artean. Programa hau 2013an jarri zuen abian Udalak, landa-auzoetako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko, auzotarren arteko harremanak sustatzeko, auzoen izaera eta nortasuna indartzeko eta auzoak bizirik mantentzeko asmoz, azken batean.

Hasieran 100.000 euro bideratu ziren *Auzotasuna* programara, eta auzo bakoitzean errolatutako bizilagun eta baserri kopurua hartzen zen kontuan dirua nola banatu erabakitzeke orduan, baina 2021an erabaki zen auzo bakoitzak gutxienez 4.000

euro jasoko zituela, eta horrek *Auzotasuna* programara bideratutako diru-atala pitin bat handitzea ekarri zuen, gaurko 117 mila eurotaraino.

Auzo bakoitzak erabakitzen du zertara bideratu dagokion diru kopurua. Normalean, zati bat auzoetako jaiak antolatzea bideratzen da, baina bestelako lanak ere egiten dira '*Auzotasuna*' programako diruen kontura, hala nola: auzoko bideak asfaltatzea, argizatzea edota biondak jartzzea, bide bazterretako hormak sendotzea, arekak garbitzea, trikitx-guneak egokitzea, zuntz sarea hedatzea, auzoari buruzko liburuak argitaratzea...

AUZOTASUNA - 2024

- Arantzazu: 6.176€
- Araotz: 9.924€
- Berezaio: 4.803€
- Garagaltza: 7.670€
- Garibai: 4.400€
- Goribar: 4.400€
- Larraña: 8.051€
- Lezesarri: 7.074€
- Murgia: 6.574€
- Olabarrieta: 18.826€
- Santxolopetegi: 4.400€
- Torreauso: 4.400€
- Uribarri: 6.591€
- Urrexola: 4.400€
- Zañartu: 4.400€
- Zubillaga: 15.267€



ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Araozko ostatua errentan emateko deialdi berria abian

800 eurotan finkatu da hileroko errenta



Araozko ostatuaren (taberna-jatetxea eta lau apartamentuak) errentan emateko deialdia hutsik geratu ostean, deialdi berria egitea erabaki du Udalak, baldintzetako batzuk egokituta. Hala, lehen 1.500 eurotan finkatuta zegoen hileroko kanona ia erdira jaitsi da, 800 eurokoa izango delarik. Bestalde, ostatuak derrigorrez zabalik egon beharko du soilik asteburu eta jai egunetan; emakidadunak erabakiko du gainerako egunetan zer egin.

Kontratua esleitzeko garaian, kanona hobetzea (31 puntu), ostalaritza arloko esperientzia (20p), jarduketa plana (49p) eta negozio eredua (15p) baloratuko dira, besteak beste. Lau urterako kontratua sinatuko da, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin. Proposamenak aurkezteko azken eguna: **apirilak 22**.

'Auzotasuna' atal gehigarriaren kontura emango diren dirulaguntza deialdia egin du Udalak

Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 2024ko laguntza deialdia egin du Udalak. Dirulaguntza gehigarri honen xedea da, Udalaren eskumenekoak eta ardurakoak diren lanetan, edo auzoaz gaindiko herri onura bat izan dezaketen egitasmoetan, auzoek bideratutako finantzazioari Udalak diru ekarpen gehigarri batekin laguntzea. Iazko deialdian bost egitasmok jaso zuten udalaren laguntza. Oلابarrietako auzo-bideetan biondak jartzea; Berotegi baserrirako bidea asfaltatzea; Azkoagain eta Urrintxo arteko oinezkoen bidea argizatzea; Garagaltza auzoko kunetak konpontzea; eta Errekalde-Torretxebarri artean biondak jartzea. Aurtengo udal aurrekontuetan 22.000€-ko diru-atala dago laguntza hauetara bideratzeko. **Apirilaren 30era** arteko epea dago proposamenak aurkezteko.

Artzain txaboletan hobekuntza lanak egiteko dirulaguntza deialdia egin du Udalak

Herri Onurako Mendietan (HOM) artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko deialdia egin du Udalak. Mendiko larreak kontserbatzeko asmoz, abeltzaintza estentsiboa eta, bereziki, ardi-aziendak sustatzea da laguntza hauen helburua, eta, bide batez, udal ondare diren artzain txabolak kontserbatzen eta mantentzen laguntzea. Laguntzak ebatzeko orduan lehenetsia izango dute artzaintza ogibide dutenek eta, bestalde, jarduerari lotutako lanak lehenetsiko dira, txabolaren kontserbazioari lotutakoak baino. Udalak 13.000 euroko diru-saila bideratuko du aurtengo laguntza hauetara. Eskaerak aurkezteko epea: **maiatzak 6**.

Udaleko Landa Garapena sailak kudeatzen dituen dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago

Zazpi dirulaguntza lerro kudeatzen ditu Landa Garapena departamentuak: Nekazaritza ustialekuak modernizatzeko laguntzak (22.000€); bertako produktuak merkaturatzeko (22.000€); nekazaritza erabilerarako ura ordaintzeko (1.000€); Putzu septikoak garbitu eta berriak egiteko (3.500€); auzoerako ermitetako argindar gastua ordaintzeko (2.500€); baso-bide pribatuak eraiki eta hobetzeko (12.000€); landa auzoetako baserrietan argi puntuak jartzeko (instalakuntzarako materiala, ghienez 300€). Eskaerak aurkezteko epea zabalik dago.




Motibatzen zaituen aukera!



Bisita pertsonalizatuak ikasturte guztian zehar

IZENA EMAN!





Gizarte eta kirol animazioaren irakaskuntza



Osasun Iarrialdiak



Mikroinformatika sistemak eta sareak



Erizaintzako zaintza osagarriak

Herriko ondarea babesteko sentsibilizazio kanpaina bat eskatu du EAJk

Herriguneko hormetan ikusten diren pintada eta kartel kopuruaren “gorakada nabarmenaren aurrean” ondare kultural eta historikoa babestu eta kontserbatzeko berehalako neurriak hartzea eta kontzientziazio kanpaina bat abian jarzea eskatu dio EAJren udal taldeak EH Bilduren gobernu taldeari.

Mozio bidez egin zuten eskaera jeltzaleek otsaileko osoko bilkuran. “Behin baino gehiagotan eskatu izan diogu udal gobernuari kaleko hormak garbi edukitzeko saiakera egin dezan, baina erantzuna beti berbera da: adierazpen askatasuna eta kezka eta ezinegon ezberdinen isla direla”, adierazi zuen Amaia Erostarbek (EAJ). “Gaur egun, baina, adierazpen askatasunerako berariaz prestatutako guneak daude eta horiek erabili beharko lirakeke, denonak diren espazioak errespetatuz”.

Jeltzaleen bozeramaleak gogorarazi zuen etxeetako jabeek ere pairatu behar dutela egoera horren ondorioa, etxeen balio estetikoaren galera dakartelako, eta gaineratu zuen pintadak garbitzen joaten den euro bakoitza diru xahuketa bat ere badela, “beste zerbaitetan erabili ahalko zen diru xahutzea”. Horregatik, sentsibilizazio kanpaina bat abian jartzea eskatzen du EAJk, eta, haratago joanda, pintaketan egileak identifikatzerik balego, gaia haiekin eztabaidatzea eta konpontzen ahalegintzea.

UDAL GOBERNUAREN ERANTZUNA

Izaro Elorza alkateak erantzun zuen, esanez, askotariko herritarrek eta askotariko aldarrikapenak daudela kartel eta pintada horien atzean. “Beraz, identifikatzea diozuenean, galdetu nahi dizuet ea norengana jo behar dugun”. Adierazpen askatasuna oinarrizko eskubidea dela gogorarazi zuen alkateak. “Pentsatu gura dugu mozioak ez duela bilatzen mezu horiek isilaraztea, eta ‘Mozal’ legea bezalakoetan sakontzea”.

Herritarren arteko elkarbizitzaren aldeko lanean jarraituko dutela esan zuen alkateak, irtenbide iraunkorrak bilatuz, kontzientziazioari begirakoak, baina ez zetozeela bat EAJren mozioaren tonuarekin. Bestalde, azpimarratu zuen alkateak, ondare historikoaren zaintza garbitasunetik haratago doala, eta udal gobernuak erabateko konpromisoa daukala ondare historikoaren zaintzarekin.



Israelgo gobernuari boikota egitea eskatu du udalbatzak

Palestinan berehalako su-etena eskatzea eta palestinarren giza eskubideak bermatu arte Israelgo gobernuarekin harreman instituzional guztiak etetea eskatzen duen mozioa onartu du udalbatzak, EH Bilduren aldeko botoz.

Espainiako gobernuari exijitzen zaio Israeli norabide biko bahitura militarra ezar diezaiola —armamentu eta segurtasun teknologia saltzea eta erostea debekatuz—, Palestina-ko herritarren eskubideak errespetatu arte. Era berean, dei egiten zaie Eusko Jaurjaritzari eta Nafarroako nahiz Espainiako gobernuari, Gazako Zerrendaren aurkako bonbardaketak eta setioa gelditzeko behar diren neurri diplomatiko guztiak har ditzatela, Israelgo gobernuaren eta haren arduradunen aurkako zigor-programa barne.

EAJ abstenitu egin zen, mozioko zenbait punturekin bat ez zetorrelako, eta bere testua irakurri zuen, erabat gaitzesiz Israeliek Gazaren kontra erakutsitako indarkeria “kru- del, indiskriminatu eta masiboa”. Urriaren 7an Hammasek Israelen aurka egindako atentatuak ere gaitzesten ditu, eta dei egiten dio nazioarteko komunitateari su-etena bultzatu eta behin betiko konponbiderako oinarriak ezartzera.



Hainbat herritarrek Palestinaren aurkako genozidioa salatzen zuten.



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENOAK, LUB FLOTARTEAK, ABIGIAK, PINTURA LANAK...







DISEÑATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOKONAK eta ASKOZ GENEAK
HAKIRA 12 8 4 esk. - 20500 UNATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77



Erantzun bikaina eman dio Oñatik KORRIKARI

Goizaldeko ordu txikitan igaro bazen ere, erantzun bikaina eman dio beste behin Oñatik Korrikari. Bizizpoz, Txanda, EAJ, Ulma, Udala, Lana, Fagor Industrial, Joxely, Oñatz, Elkar Hezi, Txanxiku ikastola, Urgain, Gaztetxea, Aloña Mendi, Gipuzkoako Futbol Federazioa, Makalena, Sortu-LAB-Erñai-Arrano, EH Bildu eta Zai Zoi Bele kolektiboen ordezkariak eraman zuten lekukoa, eta hauen atzetik ehunka herritar.

Hunkigarria izan zen, baita ere, Xabier Ugarte zenari eskainiko omenaldia. Alboan duzue Oñatiko BERRIA lagunek hari eskainitako testu ederra.

XABIER UGARTE AIASTUI

Iritsi zinen guregana **dosier** bat besapean, papera patu. Irratia, telebista... Zioen partiturak: eta komunikazio idatzia noiz? Eta nekerik gabe hortxe gaituz aritu; sosegu bat, patxada bat. Harako hartatik baitator kate hura; abezedariora, Xabier. Zenigun ordezkatu abiatzeko unea, zereginaren ereserkia margotu eta pausa bat eskaini: sintesia, amnesia, eskasia.

Zenekarren **krakis** bat zehatza: deitura, onez eta minuet guztiak bikain eta xalo baieztatuta. 1545: *Berce gendec vste çuten /Ecin scriba çayteyen*. Ezker-eskuin dihardu penduluak: galdetu-erantzun, ager-desager... Eta atzekoz aurrera ekin diogu, Xabier. Zaigu nagusitu suite moduko bat. Izanen da lizentzia, herentzia, ebidentzia. Kendu diguzu hitza: diglosia, diglosia, diglosia.

Koloreen melodia bat nahi, ostarkua. Abanguardia gaur, hemen: **HARRO HERRI**. Zeini eta zuri, Xabier: **collage** bat. Zaigu bilakatu hitza biolin: enpatia, apatia, amnistia... Zeinen ederra libreto hartan topo egin izana! Eskolania biluzia: pika, ebats, jauzi eta erdizka lauetan.

Gatozkizu falsetto mozorroa erantzita, biluzik. Ostu baitigute estilo liburua razzia hartan bezala. **Performance** teknoa; *lur bat haratago, lur bat haratago...* Edota: *Maitasun kapitala*. Oles duzu Oñati, Xabier. Olgeta, apeta, arreta. Dio orkestra zuzendariak: *Oray dute phorogatu /Eganatu cirela*.

Ekinaren puruz, Xabier, ekinaren puruz. Berezko atrebentzia bat ametsari: **habitat** bat. Sinbiosia, non *byypas* batek *Saltus* eta *Ager* akorde baititu: ante meridiem, post meridiem, requiem! Amodioa, preludea. Lege gordailua: SS-0662/03.

Aldarte zaitugu, Xabier: mila esker!

BERRIaren Oñatiko Lagunak

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARZEMENDIARRIETA, KOOP. E.

#LanerakoGertu



Aitor Pereda

Fabrikazio Mekanikoko
Produkzioaren Programazioa

Alpitu bezala ikasketa prozesua oso praktikoa da, maila altuko ekipamenduak erabili ditugu bai tailerlean eta baita laborategietan. Bi kurtso hauetan zehar **erronka desberdinak** egin ditugu, gero enpresatan izango ditugun antzerakoak, adibidez, lehenengo mailako erronka batean Aretxabaletako enpresa baten produktu bat landu genuen klasean, gero landutako enpresan aurkeztu genuen eta bukaeran produktua nola fabrikatzen zen ikusteko aukera izan genuen. Oso interesgarria izan zen.

DUALa Fagor Automation_en egiten ari naiz, sarrerako kalitate departamenduan, makinetan erabiltzen diren elementu asko gure sekzioetik pasatzen dira eta guk ematen diogu onarpena. DUALa, ikasi eta lana egitea aldi berean, oso esperientzia garrantzitsua da asko aberasten ditu ikasketan eta gainera zure kurrikulumearen lan esperientzia bezala jarri dezakezu.

Behin fabrikazioko ziklo hau bukatu ondoren lan mundura joatea nahiko nuke nire bizi leku inguruan, nahiz eta irekita nago edozein aukeratarako. Bi zikloak egin eta gero, ondo prestatua nagoela uste dut.

Eman izena!

MGEP: 664298683 // 664298704

ATE IREKIAK: Martxoak 23, 11:00
Maiatzak 4, 11:00



Aitor Pereda Loubet, donostiarra naiz eta 22 urte ditut. Babilergo teknologikoa egin ondoren goi mailako heziketa zikloko ikasketak egitea erabaki nuen, **ikasten dena praktikan** jartzen delako hasiera hasieratik eta horrela ikasten dena gehiago bameratzen delako.

MGEP aukeratu nuen, ate irekietako jardunaldietan ikusi nuena gustatu zitzaidalako, **dagoen ekipamendua, erakusteko metodologia, praktika kopurua eta baita egoteko ostatur ere** eskaintzen zidatelako.

Fabrikazio mekanikoko diseinua erakartzen ninduen eta Goi Mailako Heziketa Zikloa egin nuen MGEPen. Diseinuko zikloa bukatu ondoren **FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA** egitea erabaki nuen, ziklo baki osagarriak direlako eta Diseinutako nola fabrikatzen den sakon ikusteko.

Klasiko giroa ona da, **talde txikia da eta jatorri desberdineko ikasleak** ditut eta irakasleak ere gutaz adi daude.

GAZTAINA SUSTARRETIK

Bertako gaztain barietateak txertatzen ikasteko tailerra antolatu dute

Bada denbora bat gaztainondoaren eta gaztainaren gainbehera hasi zela arrazoi ezberdinak medio. Gaur egun gaztainondo gutxi dira garai bateko bertako barietateak mantentzen dituztenak. Hori dela eta, barietate hauek berreskuratu nahian, hautaketa eta kimaketak egin dituzte zenbait herritarrek, bertatik txerto berriak atera ahal izateko. Txerto hauek oin berrietan txertatuz bertako barietateei jarraipena ematea da helburua, besteak beste. Proiektu honen harira, **Gaztainondoan txertatze ikastaroa** antolatu dute, herritar guztiei irekia. **Apirilaren 13an** izango da (16:30-20:00) eta Efren Martin, Caceres-La Villuercaseko Gaztaina Ekoizleen Elkarteko nekazari-ingeniariak gidatuko du. Eltzaiako aparkalekuan da hitzordua Informazio gehiago: 671242721 (Unai).



**Gaztainondoan
txertatze ikastaroa
apirilaren 13an izango
da (16:30-20:00)**

Goizuetako txondorgileen bideo emanaldia eta tertulixa

Oñatiko 'Txondorraren Buel-tan' ekimenak antolatuta, Goizuetako txondorgileen bideoa ikusi eta, ondoren, bertako txondorgileen esperientzia ezagutzeko aukera egongo da, apirilaren 12an, Antixena gaztetxean, 20:00etan

IKASTAROA Emantzipazioarako etxeko ekonomia



Gaztelekuko *Maratz* zerbitzuak 18 eta 30 urte arteko gazteei zuzendutako ikastaro-tailerra antolatu du etxeko ekonomiaren inguruan. **Apirilaren 18an** izango da (18:00-19:30), Gaztelekuan bertan. Gastu finko eta aldakorrak, ezustekoak, familia-aurrekontua doitzea eta zorpetzearen inguruko gaiak landuko dira bertan. Gaztelekuan edo oñati.eus helbidetan eman daiteke izena (dohainik). Plaza mugatuak.

Erorketak prebenitzeko tailerra adineko pertsonentzat

Erorkoak dira lesio eragile nagusiak EAEko 64 urtetik gorako adinekoetan. Datu epidemiologikoen arabera, gutxienez urtean behin erortzen dira talde horretako pertsonen erdiak; eta ondorio fisikoak ez ezik, psikologiko eta sozioekonomikoak ere izaten dituzte.

Arazo horren garrantzia kontuan hartuta, erorikoei aurrea hartzeko tailer batzuk antolatu dituzte Oñatiko udaleko Gizarte Zerbitzuetako eta Kiroletako sailek osasun zentroarekin batera. Pertsona nagusiei eta euren senide edota zaintzaileei zuzenduta daude, erorikoen kopurua gutxitzeko asmoz.

Tailerrak Zubikoa kiroledegian egingo dira bi saio teoriko-praktikotan, **maiatzaren 7an eta 8an** (16:00-18:00). Bertan azalduko dira, besteak beste, zergatik gertatzen diren istripu horiek eta zer egin aurrea hartzeko; zein garrantzizkoak diren ohitura osasungarriak eta ariketa fisikoak, edota nolako laguntza teknikoak dauden eskuragarri. Izen-ematea (dohainik) osasun zentroan egin behar da.



**Maiatzaren 7 eta 8an
izango da ikastaroa
(16:00-18:00).
Osasun zentroan eman
behar da izena**



Maite Aiestui Kortabarria
Irakaslea

Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57

20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com

www.4sgoiena.com

Ingelesek Akademia
Listening Speaking Reading Writing



ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> BADATOZ UDALEKU IREKIAK! <<

Izen-emate epea itxita, martxan dira, jada, udalekueta-ko lantaldearen hurrengo aurrelanak.

Hainbat izango dira egin beharrekoak: materialaren pres-taketa, espazioen atondura, umeen taldekatzeak, begi-raleen kontratazioa eta ondorengo formazioak, beha-rrazkoa den materialaren erosketa, antolaketa propo-samenak, udalekuen eguneroko plangintzak, gurasoe-kin komunikazio kanalen prestaketak eta abar luze bat. Ikusten duzuen bezala, udalekuen antolakuntzarako egi-tekoeen zerrenda luzea da, eta hori izango da gure egin-beharrekoa eta iparra hemendik eta ekainaren 24a bi-tartean.

Gauzak horrela, nola ez, antolakuntza osatzen dugun ekipoa buru-belarri jarri gara eta jarraitzen dugu orga-nizazio guztiarekin, animo handiz gainera; gogoz bai-kaude Oñatiko kaleak beste urte batez hurrez lepo ikus-teko. Horretarako, une honetan 5 pertsonak osaturiko lantaldea daukagun bitartean, udalekuak irauten duten lau asteetan 70tik gorako ekipoa arituko gara etengabe ekin eta ekin, bertan ibiliko diren haurrei hainbat espe-rientzia gogoangarri eskaintzeko asmoz.

Umeei dagokienez, iazko kopurua berdinduz, aurten ere gurekin HH3tik HH6ra arteko 534 haurrek hartuko dute parte Oñatiko udaleku irekietan. Sormena, parte har-tzea, jolasa, errespetua eta aniztasuna sustatzen dituz-ten udalekuak eraiki nahi ditugu baita udaldi honetan ere. Maitatzeko, gozatzeko eta libre sentitzeko aukera paregabea eskaintzea dugu helburu, lagunartean eus-karaz jolastuz eta irri eginez. Haurren udako oporreta-ko zati honetan, Oñatiko txoko zoragarriak ezagutuko dituzte, eta, beste behin, zenbait esperientzia ahazte-zin eskaintzen ahaleginduko gara.

Edizio berri honetan, bigarren urtez jarraian, Eltzia-ko eraikina eta bere ingurua bihurtuko ditugu topaleku na-gusian. Berau izango baita abiapuntu herriko toki ez-berdinetara heltzeko; eta parke, kale zein natura gune-tara zabaltzeko, horiek jolasez eta kolorez betez.

Aurrerago informazio gehiago eskuratzeko aukera izan-go duzue Txaloka Udal Ludotekako sare sozialetan eta antolatuko ditugun guraso bileretan: ekainaren 11n (eus-karaz) eta 12an (gaztelaraz) 18:00etan, Eltzian.

Zatozte informatzera eta lantaldea ezagutzera... bada-toz, badatoz!



HH3tik HH6ra arteko 534 haurrek parte hartuko dute Oñatiko udaleku irekietan



Sormena, parte hartzea, jolasa, errespetua eta aniztasuna sustatuko ditugu aurten ere





Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Azaleko argazkia:
Antixena gaztetxea.

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Maketazioa:

Abao Komunikazio Agentzia

Kolaboratzailea:

Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

Batu Trianako jai batzordera

Trianako Jai Batzordearen izenean, Asier Ayerbe

Kaixo auzokide!

Udaberriarekin batera, hasi dira auzoko jaiak gerturatzen. Dagoeneko hasiak gara hainbat jai batzorde elkartzen, asteburu baterako egitarau zabal eta anitz bat antolatzeke gogo ta ilusioz!

"Asteburu bat antolatzea ez da ba horrenbestera izango?" pentsatuko duzue batzuk. Edo "Zenbat lan egin duzuen hau aurrera ateratzeko!" beste batzuk. Izan ere, kanpotik bakoitzak bere modura bitzen ditu auzoetako jaiak. Hala ere, iritzi ezberdinak egon arren, argi dago herritarren gehiengo zaretela auzoetako kontzertu, txorimalo, haur jolas, auzo bazkari, mus txapelketa, pailazo, parranda, bertso saio, etab.-era gerturatu eta hauetaz gozaten duzuenak, ezta?

Egia da gure egitaraua aurrera atera dadin zuen beharra dugula jai batzordeok, ezinezkoa izango litzatekeelako ezer antolatzea zuen parte hartzerik gabe. Baina beste alde batetik, antolatzerako orduan guk ere behar zaituztegu gogorarazi nahi dizuegu.

Bai, lan handia dago auzoko jaietako egitarau bat antolatzerako orduan.

Antolatzeke, asteburuan zehar ekintza guztiak aurrera ateratzeko eta nola ez, jaiak amaitzean guztia batu eta datorren urterako dena txukun uzteko. Ardura asko dira, eta gutxi batzuen artean banatzen baditugu, leher eginda amaitzeaz gain, indar gabe gelditzen gara hurrengo urteari begira. Eta izugarritzko pena emango liguke jende faltagatik jaiak antolatu ezinik geratzeak!

Horregatik guztiagatik, zuen apurra jartzera animatu nahi zaituztegu. Denok daukagulako zer eman, batu batzordera! Bai Trianako Jai Batzordera, baita beste auzoetako batzordeetara ere!

Hurrengo bilera apirilaren 12an izango da, Goienako parkean. Animatu zu eta zure lagunak! Zuen beharra dugu eta zuen ideiak entzuteko gogoz gaude!

Gora Triana! Gora auzotako jaiak!

BATUAK S.L. itxi egin da

Juan Ignacio Igartua, Batuak-eko langileen izenean

43 urte ondoren, BATUAK S.L.

lantegia itxi egin da. 17 langile kale gorrian gelditu gara. Azken urte hauek ez dira errazak izan langileontzat. Gerentzia honen utzikeriaren erruz iritsi gara egoera honetara. Uztailaren 19an BATUAK S.L.ko jabeak azalpenik eman gabe, alde egin zuten. Martxoan gaude eta langileok orain arte lantegira joaten jarraitu dugu, urtarrilean eta otsailean lansaririk gabe. Langileok merezi al dugu tratu hau? 8 hilabete egon gara ziurgabetasunean. Non dago langileekiko errespetua? Langile gisa horrenbeste urte egon ondoren, oraindik langileak zaharkituta eta prestakuntza gabeak garela entzun behar izan dugu, langileon erdiek 20-30 urte baino gehiagoko antzinasuna dugunean.

Bide juridikoak bere bidea darama, imaginatu dezakegu nola amaituko duen, baina langileok ondo dakigu errudunak zeintzuk dira, azken urte hauetan ikusitako jokaerek argi utzi bait dute.

Merezi izan dau

Eli Arza eta Unai Aramendi, Natra-ko LABeko sail sindikala

Hamaika kontzentraziñoz, kotxe-karabanaz, manifestaziñoz, sentadaz, kartekez, pankartaz... inguratuta bizi izan dittugu azken aste honeik Natrako langillioek. Tentsiñuak, kezkek, ardurak, gure bizitzak hartu dittue. Eta merezi izan dau, lortu dulako! Beraz gure eskerrik beruenak emutia besterik etxaku falta Oñatiri, herri moura hartutako jarreriatik. Horren adibide da otsailaren 24an burutu geben manifestaziñora atxikitu zian 29 eragile anitzak. Jarrai dezagun lan eta bizi baldintza duinen aldeko borrokan.

FAGOR
PROFESSIONAL



ONNERA GROUP

Hurbileko iragana (II)

Esteban Irusta Mallea

MUSIKAGILE HANDIAK

Francoren gerra aurreko herriko mutilen irakaskuntza laterandarren eskuetan zegoen, politikagatik kanporatuak izan ziren arte. Baina lotura hori ez zen galdu, eta herritar asko ziren gurekin kantuan egiten zutenak, eta jai nagusietan herriko txistulariak ere eguna alaitzera etortzen ziren. Musikak garrantzi handia zuen komentuan. Elizkizun gehienak musika gregorianoak launduta izaten ziren. Eta urtean zehar, jai berezietan, musika polifonikoak ordezkatzeko zuten. Giro horretan sortu ziren **Aita Madina** musikagile handia, **Julian Sagasta** eta **Julian Zelaia** organo-jotzaileak eta beste musikari asko. *Zelaia* ez zen kontzertu-emailea, *Sagasta* bezela, baina bere maila erakutsi zuen etortzekoa zen baten ordez jo behar izan zuenean.

Komentura etorritako musikari ospetsuen artean, gogoan ditut **Licinio Refice** eta **Aita Donostia**. *Reficek* bisita horretan konposatu zituen parrokiako *San Migel* ereserkia, eta Donostiako *Salve* ospetsua, Orfeoia Ama Birjinaren Jai Bezperan Santa Maria basilikan abesten duena. *Aita Donostiak* Garoan, gaurko abade etxean, eman zuen kontzertu pedagogikoa, herriko neska talde batek parte hartuz. *Asun Arzuagak*, besteak beste, abestu zuen egun horretan.

Bisitarien artean ezin da ahaztu **Nikanor Zabaleta**, une horretan munduko harpa-jotzaile onena. Bi aldiz etorri zen Oñatira. Unibertsitateko patioan eman zuen kontzertua ikusgarria izan zen. Berdin gertatu zen bigarrenetan, komentuko elizan jo zuenean. Bere eskuetan arparen soinua magikoa zen. Zerbaitegatik zegoen kontsideratuta munduko harpista onena bezela. Laterandarrekin lotura berezia zuen. Bere aita, gaztaroan, komentuko ikaslea izan zen, eta gure aurrekoei entzunda dakiugu Gabonetan, urtero, makailoa oparitzen ziela.



Ezkerrean, Julian Zelaia, Julian Sagasta eta Venancio Aranguren, parrokiako organoan. Eskuman, Nicanor Zabaleta, harpa-jotzaile handia, Agustinoetan kontzertua ematen.



> **Gerra aurreko herriko mutilen irakaskuntza laterandarren esku zegoen, politikagatik kanporatuak izan ziren arte**

Nikanor eta *Madinaren* artean ere harremana zuten, eta harpalariak sarritan jotzen zuen musikari oñatiarrak oparitu zion *Sonata* partitura. Harparako obra izan arren, organora ere zoragarririk egokitzen da, eta Donostiako Santa Mariako Caballé-Collen jo nuenean, *J.M. Azkue* organo-jotzaile handiari arreta eman zion obra honek eta kopia eskatu zidan, gero bere kontzertuetan sarritan interpretatuko zuena. *Madinak* sortutako obra interesgarrienetako bat da, zalantza barik. Baina herri mailan, benetako miresmena sortu zutenak *Arantzazu Poema* eta *Aita Gurea* izan ziren. Biak 1957an estreinatu ziren. Lehenengo Oñatiko parrokian, eta ondoren Donostiako Victoria Eugeniean eta Bilboko Arriagan. Herriko abeslari guztiek, laterandarrak eta Arantzazuko frantziskotarrak barne, hartu zuten parte Bilboko Orkestra Sinfonikoari lagunduz, **J.M. Gonzalez Bastidaren** zuzendaritzapean. Kontzertuak hunkigarriak eta ahaztezinak izan ziren. Hurrengo urteetan, obra biei jarraipena eman ziena *Oñati Abesbatza* izan zen, orkestraren ordez organoa erabiliz. Organoaz laguntzea tokatu zitzaidan niri ere, behin edo behin. *Aita Gurea*-ren arrakasta paregabea izan zen eta arrakasta izaten jarraitzen du. Euskal Herriko koral guztiek abesten dute. Estreinaldi egunean *M.J. Arrizabalaga* bakarlaria nabarmendu bazen, aipatzekoa da **Loli Ordoki** lan horretan, hainbat eta hainbat urtetan aritu eta ari dena.

> **Nikanor Zabaleta harpa-jotzaile handiak bi kontzertu eman zituen Oñatin, unibertsitateko patioan bat, eta Agustinoen elizan bestea**

Laterandarren artean, arlo desberdinetan nabarmendu direnak asko dira. Musikan, *Madinaz* aparte, **Fernando Urkia**, **Luis Mallea**, **J.M. Ugarte**, **Rafael Anduaga**, **Alejandro Elorza** eta abar luze bat dago. Idazle eta hizkuntzalarien artean, beste hauek: **Alfonso Urkidi**, **Bedita Larrakoetxea**, **Fernando Urkia**, **Eduardo Irizar**, **Xabier Irizar**, **Pedro Balzategi** eta **J.M. Elias**. Azkenengo lau hauek Lovaina-ko unibertsitatean ikasitakoak ziren. Inglaterrara, Frantziara eta Italiara joatea ohikoa zen, ikasketa bereziak egitera.

Hauek eta beste batzuek, Ameriketako ibilitakoek, lagundu ziguten gure gaztetako pentsamoldea irekiagoa izaten. Gure arteko talde giroa aberasgarria zen. Dena eztabaidatzen genuen; ikasgaiak ere bai. Ez zegoen aspertzeko astirik, nahiz eta ez izan telebistarik, ezta mugikorrik ere. Eguneko ordu guztiak araututa zeuden. Gure irakasleak etxeokak izaten ziren, baina marrazkigintzan **Migel Angel Arzuaga** genuen. Marrazkilarik bikaina izateaz aparte, eskultura lanetan ere oso ondo moldatzen zen. Laterandarren elizako fatxadan dagoen Jesusen bihotzaren irudi ederra berak egindakoa da. Heriotz goiztiarrak moztu zuen bere ibilbide artistikoa, **Jose Mari** bere anaiarena bezela, eta bien falta asko nabaritu zen herriko kultura mailan. **Jose Mari Irrintzi** otxoteko zuzendaria eta arima izan zen, eta berari zor dio hein handian arrakasta.



2023ko Aloñako Igoeraren irteera. EKAIN MUÑOZ

"Salomonen zirkuituan egoteak oihartzun eta lehiakortasun handiagoa emango dizkio Aloñako Igoerari"

Salomon markak antolatzen duen Golden Trail National Series zirkuituko lau proba puntuagarrietako bat izango da Aloñako Igoera. Horrek nazioarte mailako oihartzuna emango dio eta korrikalarien maila igotzea ere ekarriko du. Apirilaren 28an jokatu da. Antolakuntza taldeko Pablo Arejolaleibak eman dizkigu etxeko lasterketak eman duen jauzi honen inguruko azalpenak.

Nola izan da Aloñako Igoera Golden Trail National Series (GTNS) zirkuituan sartzea. Zuek bilatutako zerbait izan da ala kanpotik iritsi zaizue aukera?

Kanpotik etorri zaigu. Salomon etxea jarri zen gurekin harremanetan, Malen Osaren bitartez. Interesa azaldu ziguten, Aloñako Igoera GTNS zirkuituan egotea gustatuko litzaiekeela. Hartu-eman batzuk izan genituen, gure karreraren filosofia eta beraie-na mahai gainean jarri genituen, eta biontzako positi-

boa izango zela ikusirik, aurrera jo dugu.

Baldintza berezirik ipini al dizue Salomonek?

Ez. Eskaera bakarra izan da, gure karrerako izen-emateak berehala agortzen direla ikusirik, dortsal batzuk gordetzea eurentzat, zirkuitu hori lehiatu nahi duten korrikalariak aukera barik gera ez dai-tezen.

Zenbat dortsal?

20 inguru, baina ez dakigu beteko diren ala ez. Edozein

modutan, dortsal horiek dira Aloñako Igoerak dituen 300 plazetatik aparte.

Babes ekonomikoa edo bestelako laguntzarik emango al du Salomonek?

Ez dago konpromiso ekonomikorik, ez alde batera, ez bestera.

Zertan igarriko da Aloñako Igoera GTNS zirkuituan egotea?

Batez ere oihartzunean. Euskal Herri mailan badu izen bat Aloñako Igoerak, baina

orain, Salomonen eskutik, nazioarte mailan ere ezagunagoa izango da. Eta horrek ekarriko du, ziurrenera, korrikalarien maila ere pittin bat igotzea, lehiakortasun handiagoa, azken batean.

Partaidetzan nabaritu al duzue GTNS zirkuituan egotearen eragina?

Bai, eta hasteko, Oñatiko korrikalarien artean; orain arte, 80 inguru izaten ziren, gehienez, herriko partaideak, eta aurtan 111k eman dute izena. Gainerakoan ere parte hartzeko gogo edo interes handiagoa ikusten ari gara dortsala eskatzen ari den jendearen edota itxaron zerrrendan geratu direnen artean. Beste urteetan baino interes handiagoa sortu da, eta uste dut hori lotuta dagoela Salomonen eskutik joatearekin, sare sozialetan duen oihartzuna handiagoa delako, azken batean.

Korrikalarien artean azpimarratzeko moduko ize-nik?

Oraingo badakigu GTNS zirkuitua lehiatzen ari diren Salomon taldeko 3 neska eta 2 mutil etorriko direla. Agian, gehiago ere etor daitezke. Zirkuituko lehen probako —*Louzantrail* (Portugal)— irabazleak —June Villaroel eta Fabian Venero— daude tartean, eta GTNSa lehiatu nahi duten bi portugaldar ere etorriko dira. Korrikalari gazteak dira, baina maila polita dutenak. Azken batean, GTNS zirkuitua batez ere gazteengan pentsatuta dago, mundu mailako lasterketan parte hartzeko bitartekorik ez duten gazteengan, eta irabazleentzako saria polita da: hurrengo urtean *Golden Trail World Series* zirkuituan parte hartu ahal izatea gastu guztiak ordainduta.

Eta hemengoan artean? lazko eta 2021eko irabazle Aitor Ajuriak parte hartuko du, baita Aloñako Igoera sei aldiz —azkena 2022an— irabazi duen Walter Becerra ere. Horiez gain, oso maila onean dabiltzan Gonzal Murgoitio elorriarra eta *La Sportiva* taldeak fitxatu berri duen Ibai Larrea antzuolarra azpimarratuko nituzke, gizonezkoen artean. Emakumezkoetan, *Sky-Runner World Series* zirkuituko lehen proba irabazi duen euskal selekzioko Lide Urrestarazu ordiziarra eta iaz Oñatin 3. sailkatu zen Garazi Abasolo azpimarratuko nituzke.

Etzekoen artean, Xabier Lete eta Ainara Uribarri (*Brooks*) dira aurreko postuetan ibiltzeko hautagai nagusiak. Tamalez, azken hiru edizioetako irabazle Malen Osak ezingo du parte hartu, *World Series*-etan zentratuta dagoelako eta data horietan beste lasterketa batzuk ditu Asia aldean.

Golden Trail National Series

Munduko herrialde askotan (Estatu Batuak, Mexiko, Britania Handia, Italia, Polonia, Txina, Australia...) antolatzen ditu Salomon markak **Golden Trail National Series** zirkuituak. 14 guztira. Horietako bat Espainia eta Portugal artean jokutzen da; lau proba puntuagarri ditu, eta horietako bat Aloñako Igoera izango da, apirilaren 28an. Aurreneko proba Portugalen jokatu zen, martxoaren 3an. Beste biak Katalunian izango dira, irailean eta urrian. Zirkuitu guztietako lehen hiru sailkatuak final nagusian lehiatuko dira udazkenean. Beste alde batetik, Salomon etxeak berak antolatzen duen **Golden Trail World Series** zirkuitua dago. Izenak berak dioen moduan, mundu mailako zirkuitua da; 21 eta 42 kilometro arteko munduko zortzi trail lasterketa mitikoenak biltzen ditu —tartean Zegama-Aizkorri maratoia— eta distantzia horietako munduko korrikalari onenak batzen ditu. Munduko Kopatzat hartzen da. Malen Osa oñatiarra zirkuitu honetan lehiatuko da aurtan.



PABLO AREJOLALEIBA
ANTOLAKUNTZA TALDEKO KIDEA

"Salomonek 20 bat dortsal eskatu dizkigu, zirkuitua lehiatu nahi duten korrikalariak aukera barik gera ez daitezten, baina horiek Aloñako Igoerak dituen 300 dortsaletatik aparte dira"

"Izena emateko sistema birpentsatu egin nahi dugu datorren urtera begira, baina lehiakide kopurua handitzea ez da aukera bat, ingurumen arrazoiengatik, eta lasterkariak mimatzea delako gure helburua"

Aurtan ere ziztu bizian agortu dira Aloñako Igoerako dortsal guztiak. Harritzekoa, ezta?

Bai, lehenengo ustekabea izan zen oñatiarrentzat gordetako dortsalak ere minutu gutxitan agortu zirela. Ehun dortsal ateratzen ditugu oñatiarren izen-ematerako eta, orain arte, gehienez, 80 bat lagun apuntatzen ziren eta soberan geratutakoak izen-emate orokorrera pasatzen genituen. Baina, aurtan, 111 oñatiarrek eman dute izena; hasieran kanpoan geratu ziren 11 lagun, baina izen-emate orokorrean sartu ziren.

Izen-emate orokorreko 200 dortsalak ere oso minutu gutxitan agortu ziren. Arazo informatikoren bat egon zen, jende asko zegoelako konektatuta izena emateko gogoz, baina hori ere konpondu zen eta izen-emate ordena errespetatuz egin zen dortsal banaketa. Azkenean, kopura oso gora zihoala ikusita, itxi egin behar izan genuen izen-ematea, eta, hala ere, 80 pertsona geratu dira itxaron zerrendan.

Hurrengo urtera begira birpentsatu egin nahi dugu izen-ematearena. Beste lasterketa batzuetan (Zegama, Gorbeia...) zozketa bidez egiten dute, eta hori ere, beharbada, ez da aukerarik onena, baina, esan bezala, buelta bat eman nahi diogu gai horri, izen-emate sistema ahalik eta egokiena, erosoena eta bidezkoena izan dadin.

Partaide kopurua handitzea ez dago aukeren artean?

Ez dago, ez. Lehenengo eta behin, ingurumen arrazoiengatik. Natur parke batean gaude eta inpaktua ez da berdina 300 korrikalarirekin edo 500ekin. Bestalde, lasterketa honek daukan filosofia beti izan da lasterkariak mimatzea; ez dadila inor geratu ur barik edo jan barik azkena doalako. Korrikalariak gustura etortzea eta gustura joatea da gure helburua, eta 300 korrikalarirekin nahikoa kontrolatuta dautu. Ez dugu nahi kantitatean handitzeagatik kalitatean jaistea.

Iaz bezala, aurtan ere dohainik parte hartzeko aukera eskaini duzue. Ohikoa izaten al da hori?

Ez, inguru honetan geu gara lehenengoak, nik dakidala. Zergatik erabaki genuen hori? Lasterketa askotan jende beretsua ibiltzen delako eta, azkenerako, kamiseta pilla bat daukatela etxean, karrera guztietakoak, eta, agian, ez dute hori nahi. Horregatik, pentsatu genuen dohainik parte hartzeko aukera ematea, zerbitzu guztiak baliatuz —jan-edanak, dutxak...—, beste korrikalari guztiak bezala, baina opari barik. Baina, egia esan, gero ikusten duzu jendeari gustatu egiten zaiola →

—> kamiseta jasotzea. Aurten, adibidez, 300dik 15 bat dira dohainik korrika egiteko hautua egin dutenak. Aukera behintzat hor dago.

Parekidetasuna da lasterketa honen beste ezaugarrietako bat, sarietan behinik behin.

Bai, hasieratik garbi izan dugu sariak berdinak izango zirela gizon nahiz emakumeentzat, eta eutsi egiten diogu horri. Ea egunen batean emakume bat sartzen den aurrena plazan. Gero eta alde txikiagoa dago; iaz, esaterako, Malen 12.a izan zen sailkapen orokorrean.

Partaide kopuruari dagokionez, baina, parekidetasunetik urruti gaude oraindik.

Bai, hala da. Poliki poliki goraka doa emakume kopurua, baina aldea handia da oraindik. Aurten, adibidez, 320tik 33 dira emakumeak. Inoiz, itxaron zerrendan zeuden emakumeei lehentasuna ematea bezalako neurriak hartu izan ditugu, baina askoz gehiago ezin dugu egin.

Aurten, karrera egunerako laguntzaileak batzeko deialdia egin duzue. Zer nolakoa izan da erantzuna?

Oso ona. Deialdia ez dugu egin jenderik ez geneukalako. Kontua da, betikoak ibiltzen direla laguntzen —lagunak, familiakoak, ingurukoak...—, eta pentsatu genuen agian egongo zela laguntzeko prest dagoen jendea, baina ez dakiena nora jo. Horregatik egin genuen deialdia eta, egia esan, erantzuna oso ona izan da; ikusi dugu, urterokoez gain jende dezente dagoela esku bat botatzeko prest, eta alde horretatik oso pozik gaude.



Korrikalariak Aloña aldean dabilzan bitartean Aloña Txiki jokatu da aurten ere ASIER EGAÑA



Lasterketa egunean 170 laguntzaile egongo dira lanean ibilbidean zehar ALOÑAKO IGOERA

Karrera egunean zenbat lagun egoten zarete lanean?

170 bat lagun, Gurutze Gorrikoak, suhiltzaileak, kronometratrezaileak.. zenbatu barik.

Eta eguraldi oso makurra aterako balitz?

Baloratu egin beharko da zenbateraino den txarra, eta horren arabera erabakiak hartu. Egunean bertan antolakuntza taldeko lagun batzuk joaten dira goizeko bostetan ibilbidea egitera; kreskerioa oso arriskutsu dagoela ikusiz gero, badugu ibilbide alternatiboa pentsatuta. Egoera oso-oso txarra balitz, Urtiagaineraino elurra baldin badago, adibidez, ibilbidea guztiz aldatuko genuke.

Orain arte ez dugu ibilbidea aldatu beharrik izan. Ez litzateke arraroa izango, mendian gaudela kontuan hartuz, baina espero dezagun aurten ere eguraldia lagun izatea denok.

Salomon etxearekiko akordioa noiz artekoa da?

Ez dago ezer sinatuta. Ahozko akordioa besterik ez dago, alde biak gustura gauden bitartean jarraitzeko. GTNS zirkuituan dauden beste hiru karrerek urtetxo ba-

tzuk daramatzate eta gustura daude denak, eta geurekin ere hori da asmoa, gustura gauden artean, aurrera.

Datorren urtean Aloñako Igoeraren 20. edizioa izango da eta, dagoeneko, aurreratu duzue berezia izango dela.

Bai, 10. edizioan bezala, as-teburu osora luzatuko da ekitaldia. Ostiral gauean Arantzazu eta Buetraitz arteko igoera bertikala egingo da, igande goizean Aloñako Igoera, ohi bezala, eta larunbatean zerbait berezia egin nahi dugu. Oraingoaz ideia zaparrada bat besterik ez dugu mahai gainean. Salomonekoak ere prest daude esku bat botatzeko. Ikusiko dugu. Aurtengoa amaitu ostean hasiko gara pentsatzen.

OHARRA

Lasterketa hasiera ordua 9:00etatik 9:30etara atzeratzen da. Dorsal banaketa eta sari-ematea ere 30' atzeratuko da

Integrazioaren eta sentsibilizazioaren alde

Antxintxika Triatloi Taldeak bidea egiten jarraitzen du kirol egokituari atea ireki eta gizartea sentsibilizatzeko ahaleaginean. Hala, martxoaren 20an esperientzia berri eta aberasgarria izan zuten Zornotzako Karmengo Ama ikastetxean. Kirol egokituko proiektua aurkeztu zuten 10-12 urteko 90 gaztetxoren aurrean. Kirolak osasunean duen eragin positiboa, talde-lana eta integrazioa izan zituzten hizpide, eta oso saio interesgarria izan zen, halako konzeptu eta balioak txikitatik lantzea komeni baita.


EMAITZA ONAK

Lehiatzen ere jarraitzen dute Antxintxika taldeko kideek, emaitza onak lortuz gainera. Hala, azpimarratzekoa da



Iñaki Igartuak Azkoitia-Azpeitia lasterketako *handbike* modalitatean lortutako 2. postua. Azpimarratzekoa baita Josune Odriozolak Altsasuko duatloian lortutako bigarren postua. Joseba Azkaratek ere bere kemenaren berri eman du Sopela eta Altsasuko duatloietan.

Kirolari oñatiarrak maila bikainean



Martxoan ere emaitza on ugari utzi dizkigute gure kirolariek. Malen Osaren ize-na azpimarratu behar dugu, beste behin, mendiko eskiko Espainiako txapelketa irabazi baitu, igoera bertikaleko modalitatean. Gainera, Aiako mendi lasterketan ere parte hartu zuen Osak hil hasieran, garaipena lortuz eta errekor berria (1:12':54") ezarritz. Mendi lasterketekin jarraituz, Xabi Letek ere garaipen handia lortu du Asturiasen jokaturako 'GTPE Picos de Europa' proba entzutetsuan, *Half* distantzian. Pilotak ere hizpidea eman digu azken asteotan. Txalotzekoa, batetik, Madalen Etxegaraik Master Cup txapelketan egindako lana, nahiz eta ezin izan zuen txapela jantzi —Arrizabalaga-Erasun nagusitu zitzaizkien 22-16 Etxegarai-Gaminderi—. Pilotarekin jarraituz, Mikel Ugarte eta Ander Biain Aloña Mendiko pilotariek Udaberriko txapelketa irabazi dute. Azkenik, duatloian emaitza bikainak lortu ditu Miren Josune Bikuñak; San Vicente de la Sonsierran 5. sailkatu zen, eta Bilarren (Araba) 2. sailkapen orokorrean, eta lehenengo beterranoen mailan.

MENDI IRTEERA / Apirilak 27

ORKATZATEGI

Oñati-Urrusola Garai-Orkatzategi-Aitzulo-Oñati



Euskal Mendi federazioaren 100. urteurrena ospatzeko apirilako azken asteburuan 100 tontorretara igotzea proposatu du, eta Aloña Mendiko mendi taldeak Orkatzategira igotzea erabaki du, **apirilaren 27an**.

Ibilbide osoa oinez egingo da, autobusik gabe, herriko plazatik abiatu eta bertan amaitzeko. Guztira 20 bat kilometroko ibilaldia (+850m), 7 ordu ingurutan egitekoa. Ez du zailtasun teknikorik. Irteera behar bezala antolatzeko izena ematea eskatzen da alonamendi.mendi@gmail.com helbidean, apirilaren 25a baino lehen. Taldean doazenak federatuta egon behar dira.

Walking Football txapelketa Azkoagainen

Aloña Mendi kirol elkartearen 75. urteurrenako ekitaldiekin jarraituz, Walking Football txapelketa jokatu da Azkoagainen apirilaren 21ean. Real Sociedad eta Athletic Fundazioetako A eta B taldeak ariko dira elkarren aurka, 16:30etatik aurrera.

Bestalde, maiatzaren 1ean, Aloña Mendi eta Realeko beterranoen arteko futbol partidua jokatu da Azkoagainen (12:00).

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: linkorta@tefeline.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

Vivaldiren 'Lau Urtaroak', Aequus Ensemble oskestraren eskutik

Apirilaren 13an izango da kontzertua, Santa Ana aretoan, eta bi emanaldi egongo dira, haurrei zuzendutakoa bata, didaktikoa (10:30) eta publiko orokorrari zuzendutakoa bestea (12:00)

Ganbara Faktoriaren baitan sortutako *Aequus Ensemble* orkestrak urteko lehen kontzertua eskainiko du apirilaren 13an, Santa Ana aretoan, 12:00etan, eta Vivaldiren kontzertu ezagunena —Lau Urtaroak— eta *2 Txelorentzako kontzertua*, eskainiko ditu Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean. Kontzertu ederrea, denboraldia hasteko. Sarrerak (5€) Txokolateixan edo www.oñati.eus webgunean eskuratu ahal izango dira.

PASE BEREZIA

Aurretik (10:30), musika eskolako 6-7 urteko ikasle eta hauen familientzako pase berezia egongo da. Datorren urtera begira instrumentua aukeratu behar duten ikasleak dira, eta aukera ederra izango dute orkestra baten osakera eta bertako instrumentuak (biolina, biola, biolontxelo, kontrabaxua...) ezagutzeko eta *Lau Urtaroak* bezalako obra bat ulertzeko, Aitor Biain zuzendariaren eta Potx pailazoaren eskutik. Emanaldi hau dohainik izango da.

Musika eskolako gaztetxoek orkestra barrutik ezagutzeko aukera izango dute Aitor Biain zuzendaria eta Potx pailazoaren eskutik



Kondaira ezagunetako doinuak musika bandaren eskutik

Hook kapitaina, Alibaba edota Merkatu Persiar batean bezalako kondairetako doinuak eskainiko ditu musika bandak apirilako kontzertuan

Musika eskolako ikasleak gonbidatu bereziak izango dira eta banda barrutik ezagutzeko dute

Berezia izango da musika bandak apirilaren 28an (Zubikoa, 13:00) emango duen kontzertua, gonbidatu bereziak egongo baitira entzuleen artean. Duela bi urte hasitako ohiturarekin jarraituz, musika eskolako ikasleei eta hauen familiei bereziki eskainitako emanaldia izango da. Hala, 6-7 urteko 30 bat ikasleek musika banda barrutik ezagutzeko aukera paregabea izango dute. Hurrengo kurtsora begira instrumen-

tua aukeratu behar duten neska-mutikoak dira eta kontzertua hasi baino ordubete lehenago, 12:00etan, Aitor Biain zuzendariak azalduko die nola osatzen den musika banda bat, eta instrumentu familia ezberdinen soinua eta bestelako ezaugarriak bertatik bertara ikusteko aukera izango dute.

Gainera, egun horretako musika bandaren kontzertua leku pribilegiatu batetik —0 aulkitik— jarraitu ahal izan-



Aitor Biain musika bandari buruzko azalepnak ematen haurrei

go dute, musikarien artean eserita, bandako kide balira bezala. Helburua, azken batean, publiko gaztea, etorkizuneko publikoa erakartzea da eta, bide batez, musika bandaren harrobia lantzen hastea.

TOP KONDAIRAK

Musika eskolako ikasleak gonbidatu bereziak izango badira ere, kontzertua herri-tar guztiei irekia egongo da, noski. Dohainik izango da,

beti bezala, baina gonbidapena eskuratu behar da Txokolateixan edo musika eskolan —apirilaren 8tik aurrera—.

Oraingoan kondaira ezagunetako doinuak eskainiko ditu musika bandak (*Nimrod, Of Castles and Legends, Epic Games, Hook, Legends of Alibaba, En un mercado persa.*), eta bideo-jokoetako musikaz gozatzeko aukera ere egongo da *Epic Games Theme*-rekin.




Hortensia Alcalaren margolan erakusketa

APIRILAK 15-28, KULTUR ETXEAN

'Bizitza amaitu egiten baita', dio abestiak, eta, hala, Hortensia Alcalá García oñatiarrak bere margolanak erakusteko unea iritsi dela erabaki du. Kultur etxean ipiniko ditu ikusgai, apirilaren 15etik 28ra, astelehenetik igandera (18:00-20:00). Berrogeita hamarretik gora artelan izango dira; gehienak akrilikoak eta olioak, baina badira marzkiak eta *decoupage* teknikarekin egindakoak ere.

Margolaria ez ezik, idazlea ere bada Hortensia, eta idazten dituen istorioek, entzuten duen musikak edota eguneroko gertakariak iradokitzen diotena islatu ohi du bere kuadroetan. Margolanak interpretatzen laguntzen duten testuak ere ipiniko ditu.



Bueltan dira Eltziako Topaguneko kultur ekitaldiak

lazko udazkenean jarri zen martxan TOPA-GUNEA ekimena, Eltzia proiektua indartzea helburu duena. Hileroko kultur ekitaldi bat antolatzen dute Eltzia taldeen artean, auzolanean, eltzekideen arteko elkar ezagutzeta eta harremana indartzearekin batera. Herritarrak Eltzia gerturatzea da, noski, ekimen honen beste helburua.

Martxoan izan zen aurtengo lehen saioa, *Hatxe* taldearen kontzertuarekin. Apirilaren 21ean **bakarrizketa** saioa egongo dela aurreratu digute, baina zehaztu gabe dago oraindik zein bakarlari ariko diren bertan.

txiki txoko
Haurreskola (0-2 urte)

ATE IREKIAK

Apirilaren 22tik apirilaren 25era

Zatoz gu ezagutzera!!!

Hitzordua hartzeko:
✉ oinati.oinati@haurreskolak.eus
☎ Telf: 943 71 64 05
📷 @txiki_txoko_oinati
📘 Txiki-Txoko haurreskola

**• IZEN EMATEA:
Apirilaren 22tik
maiatzaren 10era**

Olakua 19



Oñati Abesbatzako kide izan zen Xabier Ugarteren urte askoan.

Oñati Abesbatza eta Madrilgo Euskal Etxeko Orfeoia

XABIER UGARTEREN OMENEZ

Kontzertua eskainiko dute maiatzaren 4an Bidaurretako elizan, 12:30etan

Oñati Abesbatzak eta Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen Madrilgo Euskal Etxeko Orfeoia kontzertu berezia eskainiko dute maiatzaren 4an, Bidaurretako elizan (12:30), urtarrilean zendu zen Xabier Ugarteren omenez.

Gauza on asko esan litezke Xabier zenari buruz, baina oraingoan musikarekin lotutakoetan zentratuko gara, horixe baitzen bere benetako zaletasuna eta pasioa. Gitarra zuen musika tresna kuttuna. Joxe Azpiazu gitarra-jotzaile eta konpositore handiaren eskutik ikasi zuen berau jotzen. Berak grabatutako disketeak bidaltzen zizkion Xabierrek Azpiazuri Suitzara, eta honek zuzenduta bueltatzen zizkion Oñatira.

Ibilbide luze eta oparoa egin zuen Xabierrek gitarra lagun zuela: *Nagis* eta *Ne-*



kez taldeetan jo zuen, eta bakarlari gisa edota kitarra jotzaile, ganbera-musika talde eta ahots bakarlari ezberdinekin ere aritu zen.

ONATI ABESBATZAN

Oñati Abesbatzako kide ere izan zen Xabier urte askoan, eta ez nolana hikoia. "Taldekokerik sutsuenetakoa zen", adierazi digu Mirengu Plazaolak, abesbatzako zu-

zendariak. "Musikan jantzia zen Xabier, eta tenoreen soka, adibidez, berak eramaten zuen koruan, eta zuzendaria falta zen egunetan hantxe zegoen entsegua gidatzeko prest".

Bestalde, Arantzazuko 'Elkarrekin Bila' ekimenaren baitan, bizi-zailtasunak dituzten pertsonei laguntzeko Oñati Abesbatzak egin ohi dituen saioetan ere funtsezkoa izaten zen Xabierren gitarra giroa jartzeko, eta zer esanik ez Oñati Abesbatzaren ospakizunak girotzeko ere.

ARTXIBO LANA ETA BIOGRAFIK

Musikaren arloan Xabierrek egindako ekarpena haratago ere joan zen. "Aipamen berezia merezi du, Jotxo Larrañagarekin elkarlanean, Agustinoetako artxiboan egindako lan bikaina. Aita Madi-

na, Fernando Urkia, Luis Mallea, Julian Sagasta, Blas Andres Kortabarria, Jose Azpiazu eta beste batzuen lanak antolatzeaz gain, hainbat partitura garbira pasatu eta eskaneatu zituen galdu ez zitezten. Lan izugarria eta meritu handikoa, musika arloko adituek aitortu izan duten moduan", adierazi digu Xabier Zelaiak, Oñati Abesbatzako lehendakariak.

Horrez gain, Xabier gogotsu saiatu zen, Jose Antonio Azpiazurekin elkarlanean, herriko hainbat musikariren (Madina, Mallea, Sagasta, Azpiazu, Antonino Ibarrondo) biografiak argitaratzen.

Ondo merezitakoa da, zailantza barik, Oñati Abesbatzak Xabierri eskainiko dion omenaldia. Asko maite zuten abesbatzako kideek eta haren hileta egunean bertan erabaki zuten ohorezko bazkide izendatzea, *in memoriam*.



XABIER ZELAIA
OÑATI ABESBATZAKO
LEHENDAKARIA

"Agustinoetako artxibo musikala antolatzen lan izugarria egin zuen, musika adituek aitortu duten moduan"



MIRENGU PLAZAOLA
OÑATI ABESBATZAKO
ZUZENDARIA

"Gure abesbatzeko kide sutsuenetakoa zen Xabier, eta gure lehen kontzertua bere omenezkoa izatea nahi genuen"



ESTEBAN URZELAI
MADRILGO EUSKAL ETXEKO
ORFEOIKO ZUZENDARI

"Harreman estua izan nuen Xabierrekin, batez ere Aita Madinaren musikari lotuta. Gustura parte hartuko dugu omenaldian"

hartu zuen zuzendaritza. "Pandemia ostean nahiko ahul zegoen abesbatza, 17 lagun besterik ez, eta nahiko nagusiak gehienak. Beraz, berritze lan bat egin behar izan dut, jende gaztea erakarriz, 62 laguneko taldea osatu arte —horietatik 44 joango gara Oñatira—. Errepertorioa, koruaren soinua eta lan egiteko modua ere berritu ditugu, eta Oñatin denetik abestuko dugu: euskal musika, erlijiosoa, folklorea... hainbat euskal musikagile-ren lanak.

Oñati Abesbatzak eta Madrilgo Orfeoiak saio labur bana egingo dute eta amaieran elkarrekin kantatuko dute, Xabier Ugarteri egingo zaion omenaldia borobilduz. Kontzertua dohainik izango da, maiatzaren 4an (12:30); zapatu eguerdirako plan bikaina. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

MADRILGO EUSKAL ETXEKO ORFEOIA

Esteban Urzelai zuzentzen duen Madrilgo Euskal Etxeko Orfeoiak ere gustu handiz onartu du Xabier Ugarteri eskainitako kontzertuan parte hartzeko gonbita, maiatzaren 1etik 5era Euskal Herrian egingo duten biratxo

baliatuz. Urzelai harreman estua izan zuen Xabierrekin, bai pertsonalki —elkarraren ondoan abestu zuten Oñati Abesbatzan— eta baita Aita Madinaren musikari lotuta ere. "2022an Madinaren 50. urteurrenaren harira *Suhar* koruarekin diskoa grabatu genuenean

Xabierren laguntza eta bultzada ezinbestekoa izan zen, eta halaxe aitortu genion berari eta Jotxo Larrañagari diskoan egindako eskaintzan".

Madrilgo Euskal Etxeko Orfeoiak 40 urte pasatxoko ibilbidea du eta Esteban Urzelai duela bi urte eta erdi

mondragonLingua

Summer camps

Udalekuak

Udaleku irekiak

Colonias

Colonias abiertas

Orduetgia: Goizez 9:30etatik 13:00etara

Hurrei harrera egiteko zerbitzua: 8:30 – 9:30

Iraupena: 2 - 4 aste

Datak: Ekainaren 24tik uztailaren 19ra

Jarduerak: Irteerak, MasterChef, eskulan tailerrak (barruan eta kanpoan), jolasak eta kirolak.



<https://summercamps.mondragonlingua.com/oñati>



OÑATI

Motxon, 7

943 71 60 00

oñati@mondragonlingua.com

» informazioa eskatu

Harkaitz Canoren antzezlana, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko

- > Alabarekin komunikatzeko paperezko hegazkinak erabiltzen dituen aitaren istorioa kontatzen du
- > Ikastetxeei zuzendutako emanaldia izango da, apirilaren 22an, eguerdiko 12etan

Liburuaren hilabetea izaten da apirila. Hilaren 2an Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna. Eta urtero bezala, udaleko Kultura sailak eta Udal Liburutegiak hitzordu bereziak antolatu dituzte urtemuga horien harira.

Ekitaldi horien artean Harkaitz Canok idatzitako 'Mundua pitzatuta dago, baina hantxe gabiltza oinez' (Ttanta Teatro) antzezlana azpimarratu nahi dugu. Alabarekin (Miren Arrieta) nola komunikatu ez dakiela, egunero, agur esateko, balkoitik paperezko hegazkin bat bidaltzen dion aita (Asier Hernandez) baten istorioa kontatzen du. Hegazkinetan idatzitako mezuen bidez, aitak literatura-misioak jartzen diz-



Tertulixan saio irekia, haurrentzako ipuin kontaketa eta POP-UP tailerra ere antolatu ditu Udal Liburutegiak

kio alabari, liburuzain (Sara Cozar) zorrotz baten konplizitatearekin argitu ditzan. Horrela, liburuaren eta bizitzaren arteko lotura ezagutuko du neskatokak.

Liburutegia munduari irekitako leiho gisa erakustea da obraren helburua; liburutegiei eta literaturari omenaldia edo gorazarre egitea, azken batean. Harkaitz Canok sortutako antzezlana da —izenburu bereko album ilustratu bat ere argitaratu du—, Fernando Bernuésen ideia batean oinarrituta. Bernuésen berak zuzentzen du antzezlana eta maila handiko hiru aktorek gorpuzten dute.



Literatura solasaldi irekia Miriam Lukirekin



Miriam Luki BERRIA

Miriam Luki (Urretxu, 1973) kazetari eta idazlearekin bertatik bertara berba egiteko aukera egongo da hil honetako euskarazko *Tertulixan* saioan, *Argialdiak* (2023, Susa) ipuin liburua hizpide hartuta. Itziar Ugartek gidatuta. Gipuzkoako Liburu Denden Elkartearen Zilarrezko Euskadi Saria jaso zuen iaz liburu honek. **Apirilaren 9an** izango da saioa (kultur etxean, 18:30) eta irekia da herritar guztientzat.

2-3 urteko haurrentzako ipuin kontaketa



Apirileko Ostegun Kontalariak saioa berezia izango da, 2-3 urte arteko haurrei zuzenduta egongo baita. Istoriok, kantak eta umorea uztartzen dituen *TTipi TTapu* saioa eskainiko du Ana Apika, ipuin kontalari-clown bizkaitarrak, **apirilaren 18an**, Haur Liburutegian (18:00). Haurrek heldu batekin egon beharko dute. Gonbidapenak apirilaren 8tik aurrera.

POP-UP tailerra



Irudikoa bezalako liburuak egiten ikasiko dute

Apirilaren 2an ospatzen den Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, POP-UP tailerra antolatu du Udal Liburutegiak. LH2tik gorako gaztetxoei zuzendutako saioa da, eta akordeoi tankerako liburuak egiten ikasiko dute, teknika desberdinak erabiliz: kirigamia, espiralak, aurpegi eta eszena iruditxo ebakiak... *Menbrilla* taldeko Javier eta Belen artista eta artisauek gidatuko dute tailerra. **Apirilaren 25ean** izango da, Haur liburutegian (18:00). Izen-ematea apirilaren 15etik aurrera.



(*) Itten: arrastua, pistia

>> URRUSULAKO KONTUAK (VII)

Aposte famosua



Hona hemen urrusuldar batek, 1960 inguruan, auzuan egin zan aposte famosu baten gaiñian kontautakua:

Jokuan berotu eta gero apostia ... Osiñagako Joxe zanak eta Martzeliño Antxittenak Aitzgaiñeko tubotik egin euen a ezagutu zeuen? Nik hemeretzi urte inguru ñakuan. Martzeliño Antxitta hori zuan gure modukua, nerbixua, nerbixo hutsa, eta bere denporan basuan lanian-ta, gizon gogorra. Osiñagako Joxe zuan, berriz, puska bat hire antzekua, pisu haundixa eta, suabe! Behin akordaitten nauk egin xuain karrera, karrera, hau entzun, e! Olatetik hasi eta Aitzgaiñera uste xuat zala, oker ezpanago. Bikaiña izan zuan, baiña gizon batek kiluak xakuan bastante gehixago, eta orduan bestiari esan txain hik hartu bihar dok harrixa bizkarrian honen kiluak bardinketako. Poltsa edo motxilla baten harrixak hartu, pisua bardin ifiñi eta Aitzgaiñera, e! Olatetik hasi eta Aitzgaiñera tubotik, gaiñera tubotik, Osiñaga Joxe eta Antxitten Martzeliño.

Badakitzu zeñek irabazi eben?

Martzeliñok! Joxe zan oso tenplaua, oso tenplaua eta pisu haundiko gizona. Bestia zuan, berriz, ziharo kontrakua, txinpartia lakotxia zuan ha, eta harek nago, behintzat, harek irabazi ebela. Hari ifiñi harrixa bizkarrian, eztaikit zenbat kilokua, bestiaren kiluak bardinketako, eta segi aurrera!

Hori iri-probetan egitten xuai, irixak pisaitten txuai, eta gero harrixak ifintten txai pisua iguala izateko.

Ba, hor be igual, gizonak izatia, baiña Martzeliño zuan ariña, nere antzekua..., eta Joxe zuan, berriz, pauso motelagokua.

Ba, etzuan lan makala, tubotik gaiñera!

Tubotik holaxe, e!

Zenbat urte eukiko euen hori egin euenian?

Ba, hareik sasuerik onena, zer esango dot, ba? Hogeita hamar urte edo horren inguru, hortik berrogeira-edo.

Orain dala hiru urte igo geben tubotik azkeneko aldiz eta kablia dago obaketako, hiru lagun giñan eta batek esan eben 'lehenengua eta azkena'; orduan, pentsau egizu pisu horrekin...

Bai, bai, pisuarekin. Halakua zan Martzeliño, esandako moduan, igarra eta bizixa, eta Joxe, berriz, zan, ba, gizenagua eta trankillagua. Pisu haundixa eukan, baiña horrek eztau egitten, pisua bardin xoian orduan. Kontua da Martzeliño zala gogorra, beraren moduko gogorra, eta harek irabazi otsala apostia!

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



ARTISAUAK

APIRILAK 6 / 11:00-14:30

Herriko artisauen azoka

Oñati Bizirik diskoaren aurkezpenaren harira. [Gaztetxean](#)

BAKARRIZKETAK

APIRILAK 21 /

Bakarrizketa saioa

Eltziako Topagunea ekimenaren baitan. Bakarlariak eta ordua zehazteke. [Eltzian](#)

DOKUMENTALA

APIRILAK 12 / 19:00

'Arantzazu. 36zm, 5 mende, herri bat'

Dokumentalaren aurkezpena [Santa Ana](#)

APIRILAK 12 / 20:00

Goizuetako Txondorgileak

Bideo emanaldia eta tertulixa [Gaztetxean](#)

ERAKUSKETAK

APIRILAK 15-28 / 18:00-20:00

PINTURA ERAKUSKETA

Hortensia Alcalaren margolanak ikusgai egongo dira [Kultur etxean](#)

HITZALDI-MAHAI INGURUAK

APIRILAK 10 / 19:00

'Begirada bat musikaren euskal eszenari'

Gonbidatuak: Amets Aranguren, Lide Hernando eta Jurgi ekiza. Aurkezlea: Itziar Ugarte. [Kultur etxean](#)

APIRILAK 11 / 18:00

'Borroka antifaxista'

Hizlariak: June Iartza eta Iker Izagirre. Jarraian kontzertua+pintxopotea. [Gaztetxean](#)

APIRILAK 17 / 19:00

'Oñatiko musikaren iragana eta oraina'

Gonbidatuak: Bull, Nahia Herraiez, Pototo eta Aitor Regueiro. Aurkezlea: Aitziber Aranburuzabala. [Kultur etxean](#)

IKASTAROAK

APIRILAK 13 / 16:30-20:00

Gaztainondoan txertatze ikastaroa

Efren Martin (Caceres-Las Villuercaseko Gaztaina Ekoizleen Elkarte) nekazari-



KONTZERTUA / Apirilak 7 (12:30)

Haize Arrosa taldea

Berrizen (Bizkaia) 2022an sortutako taldearen kontzertua (6€). Askotariko erritmoak (folk, rock, country, pop...) lantzen dituzte. [Gaztelekuan](#)

ingenariaren eskutik. [Eltziako](#) aparkalekuan

LITERATURA

APIRILAK 9 / 18:30

Miriam Luki idazlearekin tertulixan

Argialdiak liburuaren inguruko tertulixan saio irekia, Itziar Ugartek gidatuta. [Kultur etxean](#)

MUSIKA

APIRILAK 6 / 19:00

'Oñati Vizirik' diskoaren aurkezpena

Zentzu Okerra, Estolda, Hamarratz, Lizartxo, Osaba Kimu, Gassius Clay, Malko eta Kepix. [Gaztetxean](#)

MARTXOAK 13 / 17:30

Kontzertu antifaxista

Maddi Arlanzonon saio akustikoa [Arranon](#)

MARTXOAK 13 / 20:00

Kontzertu antifaxista

Zentzu Okerra, Nikotina, Lee Kore eta Herdoil (Aurrez 7€/ Egunean 12€) [Gaztelekuan](#)

APIRILAK 19 / 22:00

Ni Hil + Ikarass

Burrunda faktoriak antolatuta [Gaztetxean](#)



HITZALDIA / Apirilak 17 (10:00)

'Gure zirkua, euskal artisten mundu bat'

Hizlaria: Iker Galartza, pailazo eta aktorea. Oñatiko Esperientzien Gelak antolatuta. [Kultur etxean](#)

APIRILAK 13 / 12:00

Vivaldiren 'Lau Urtaroak'

Aequus Ensemble orkestraren kontzertua (5€) [Santa Ana aretoan](#)

APIRILAK 26 / 18:30

Herrixa kantuan

Musika eskolak antolatutako kantu-jira [Foruen plazan](#)

APIRILAK 28 / 13:00

Musika Banda

'Top kondairak' [Zubikoa pilotalekuan](#)

APIRILAK 28 / 18:30

Pelax

Talde donostiarraren kontzertua, Burrundak antolatuta, Aloñako Igoera borobiltzeko [Gaztetxean](#)

PAILAZOAK

APIRILAK 20 / 17:00

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

'Ez gara jaitsiko' ikuskizuna eskainiko dute, Txantxiku Ikastak antolatuta. Sarrerak (10€) Txokolateixan eta ikastolako idazkaritzan. [Zubikoan](#)

TAILERRAK

APIRILAK 25 / 18:00

POP-UP TAILERRA

Akordeoi-liburuak egiten ikasteko tailerra, LH-2tik gorakoentzat [Haur](#) liburutegian

OLABARTAKO JAIXAK

Apirilak 26, ebaikotza

18:45 Olabartara igoera kalejiran Artxubi baserritik
19:00 Txorimaluak
22:00 Kontzertua eta DJak (Zentzu Okerra + Txua + Emaion + Bob Merlet). Bus zerbitzua egongo da

Apirilak 27, zapatua

13:00 Pelota txapelketako finalerdixak
14:30 Auzo-bazkarixa eta ondoren: Egaña, Lizaso eta Izer ta Alabier
19:00 Erromerixa

Apirilak 28, domekia

11:00 Meza
12:30 Gazta eta sagardo dastaketa
17:00 Jolasak
18:00 Txorimaloak

Maiatzak 1, eguaztena

11:00 Meza. Ondoren, pelota txapelketako finalak
12:00 Luntxa eta dantzak
16:00 Mus txapelketa. Bukatzeko, errifaren zozketa eta itxafleroak

PAKE LEKUKO batzar orokorra

Pake Leku elkarteak apirilaren 12an egingo du urteko batzar orokorra, arratsaldeko 18:30etan, elkarteko aretoan. Iazko memoria, aurtengo aurrekontua eta helburuak, eta juntako kideen berritzea daude gai ordenan.

LIBURUTEGIA



Hileko gomendioa

Emilio Varela eta Carmiña Dovale arkitektoek tirada txikiko liburu bitxi bat argitaratu dute. Forman zein edukian askea. Bere txikitasunetik brebiarioak xehetasunera joko du, horrela Basilikaren handitasuna ikusi ahal izango dugu. **Izenburua:** Arantzazuko Brebiario. **Autoreak:** Emilio Varela eta Carmiña Dovale. **Itzultzailea:** José Luis Padrón

ZINEA



ORDUTEGIA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)
Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 eta 22:00), igandea (19:30) eta astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Apirilak 4-8

ZINE KLUBA: Desconocidos
NAGUSIAK: Radical
HAURRAK: -




Apirilak 11-15

ZINE KLUBA: Los pequeños amores
NAGUSIAK: Arantzazu
HAURRAK: Johnny Puff: misión secreta



Apirilak 18-22

ZINE KLUBA: Disco Boy
NAGUSIAK: Los niños de Winton
HAURRAK: Enma y el jaguar negro



Apirilak 25-29

ZINE KLUBA: Puan
NAGUSIAK: Pñajaros
HAURRAK: Dragoi-jagolea



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorenzo 3 Tel: 943 78 21 16
APIRILAK 3, 4, 12, 13, 14, 22 eta 23.
MAIATZAK 1 eta 2.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 Tel: 943 78 01 22
APIRILAK 1, 5, 6, 7, 15, 16, 24 eta 25.
MAIATZAK 3, 4 eta 5.

GARATE

Kale Barria 42 Tel: 943 78 05 58
APIRILAK 8, 9, 17, 18, 26, 27 eta 28.
MAIATZAK 6 eta 7.

ULDAIN

Kale Barria 6 Tel: 943 78 11 28
APIRILAK 2., 10, 11, 19, 20, 21, 29 eta 30. MAIATZAK 8 eta 9.

MERKATU TXIKIA

ALOKATZEKO etxe bila dabilen alaba bakarreko familia gara. Biok lanean. Deitu: 632696233

GARAJEA alokairuan ematen da San Lorenzo auzoan. Deitu: 617238637

ETXEBIZITZA alokairuan hartu nahi du 2 seme-alabadun familiak. Garbiak eta txukunak dira. Errekomentazioak dituzte. Deitu: 624804598 / 664347798

ODOL ATERALDIA

APIRILAK 19 / 16:30-20:30 MU-ko Enpresagintza fakultatean. Hitzordua hartzeko, deitu: **943007884**



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

etxian@etxian.net
www.etxian.net



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40



LANA

Innovation from nature



BEAM H 20 U



**THREE-LAYERED
SHUTTERING PANEL
IRU-PU & STD**



PELLET



LANA S. Coop.
Czech LANA s.r.o
www.lana.eu